



## Ondarea erronka

Gazta aldean zuela, Arruazu eta Izaba lotzea lortu zuen Ganboak / 6

**Dinabide, eraldaketa digitalerako Sakanako guneak, astelehenean zabalduko ditu bere atek / 9**

**Altsasu Gurasoen esker ona eta kezka. Eta plataformaren 3. urteurreneko egitarau zabala / 2-4**

**Joseba Ezkurdiak Erik Jaka izango du aurkari bihar Labriten Lau T'erdiko finalerdietan / 16**

**Mendian orientatzeko tresnen eta baliabideen ikastaroa antolatu dute Altsasun / 18-19**

**'Vivir dos veces' pelikularen protagonistetako bat da Mafalda Carbonell Arellano / 23**



Iortia kultur guneko Altsasuko auziari buruzko erakusketa gelan eman zuten prentsaurrekoa.

# Iruñekoagatik eskertuta, Zaballakoagatik kezka

Altsasu Gurasoak taldeak Iruñeko kontzentrazioan eta Duintasunaren Martxan parte hartu zutenei esker ona adierazi zieten. Arabako kartzelan astelehenean izandako "istiluagatik" kezka azaldu zuten

## ALTSASU

Edurne Goikoetxeak eta Antxon Ramirez de Aldak, Altsasu Gurasoak taldearen izenean, eskerak eman zituzten "larunbatean Iruñean justizia olatu handi bat eratzeagatik". Iruñean bazter guztietako jendea bildu zela eta guztiak kontzentrazioan izateagatik esker ona azaldu zuten gurasoek. Larunbateko jendetzaren argazkiak "adierazten du gizarteak tinko jarraitzen duela, injustizia salatzen. Eta prest dagoela jarraitzeko askatasuna lortu arte". Bizikleta martxa antolatut zutenei, parte-hartu zutenei eta Berriozarren bazkaria prestatu zutenei "bihotzez" eskertu zieten. Altsasukoak Aske herri plataformak hiru urtetan egindako lana aitortu zuten. "In-

justiziaz inguratuta nabigatzen ikasi dugu eta jendea, eta plataforma, gure arraunak zarete". Altsasuko auzian kezka duten estatuko jende guztiari ere esker ona azaldu zioten.

Altsasuko Gurasoak taldeko kideek Iruñekoagatik esker ona azaltzeko Iortia kultur guneko erakusketa gela aukeratu zuten. Han Artebide taldearen Altsasuko arte azoka ikusgai dago larunbatera arte. Aurten azokak estreinakoz gai bat hartu du, Altsasuko auzia, eta haren inguruko lanak daude ikusgai. Tartean Oihanen aita den Koldo Arnanzan margolana dago. Ramirez de Aldak esan zuenez, erakusketa "eder honekin adierazten dugu Altsasuko auzia bizirik dagoela".



## Espetxe onurez

Europa Press agentziak asteartean zabaldu zuen Iñakiren abokatuak harendako hirugarren gradua eskatu zuela. Haren gurasoek oraindik halakorik ez dagoela jakinarazi digute. "Ostiralerako egin nahiko luke". Ramirez de Aldak gaineratu zuenez, oraindik ez dago ezer: "Epeak pasa behar dira eta horrekin heldu dira onurak. Lehenik zenbat egun preso daramaten begiratu behar da. Gero espetxe onurak jasotzeko protokoloa bete beharko da. Lehenbailehen eginen dute abokatuek. Baina orainoz ez dago ezer. Gainera, mantso-mantso doa". Gurasoak esperoan daude.

Zaballako espetxeko 3. moduluan funtzionarioen eta preso batzuen arteko "istilu" bat izan zen astelehenean. Altsasuko zazpi presoak 4. moduluan daude eta telefono deia egiterakoan jaso zuten gertatutakoaren berri. Hala ere, gurasoek "kartzelan gauzak pasatzen direla" eta "kezka" adierazi zuten. "Ematen du Zaballan egoera bortitza dela. Barruan dagoen egoeraz kanpoan ez dakigu ezer". Aurten bost preso hil dira Arabako espetxean. Gurasoek nabarmendu zuten, "gazte horiek kalean egon behar zuten. Hala ere, barruan daude. Kartzela kartzela da eta ondorioak beti sortzen dira. Ez dago espetxe onik".



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com



**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLEOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Antolatzaileek kontzentrazioan 52.000 pertsona elkartu zirela adierazi zuten.

# Injustiziatik justiziarako bidea egin nahian

Espainiako Auzitegi Gorenak Altsasuko Auzian emandako epaia salatzeko jendetza elkartu zen Iruñean larunbatean. Gurasoek esan zuten, epai "krudel eta neurrigabeak gure seme-alaben bizitza betirako markatu du"

## ALTSASU

Iruñeko Justizia Jauregiaren ondoan, Intsumisio plazan egin zen Altsasuko Auziko epaia salatzeko kontzentrazioa. Altsasuko Gurasoak taldeko Antxon Ramirez de Alda eta Igone Goikoetxea oholtzara igo zirenerako han presente zegoen injustizia hitza, letra handiz osatuta. Orain arte gurasoek justizia aldarrikatu izan dute eta hizki handi batzuk mobilizazio batean eta bestean erabili izan dituzte. Justizia eza agerian uzteko haien aurretik gorritz margotutako gaztelaniazko in aurrikzia gehitu zioten larunbatean. Hitz esan gabe ere, gurasoek mezua bidali zuten.

Jendetzaren aurrean hartu zuten hitza eta euren eta presoan izenean elkartasuna eskertu eta Kataluniari agur berezia eskaini ondoren, gurasoek salatu zuten haiek "botere judizialaren aldetik injustizia" jaso dutela, bai Espainiako Auzitegi Nazionalan bai Gorenean. Berritoren gogoraz zuten auzipetuei, epaile naturalak epaitua izateko oinarritzko eskubidea urratu

zitzaiela. Hiru urtetako bidearen "krudeltasuna" nabarmendu zuten gurasoek eta euren seme-alabak "amets gaizto baten gatibu" direla gaineratu zuten, eta horri "ezin zaio salatzeari utzi". Terrorismo eta ideologia diskriminazio salaketak indargabetu dituzten arren epaia "injustua" dela eta "muntaiak" segitzen duela nabarmendu zuten gurasoek. Euren seme-alaben eta "guztionean seme-alaben alde, oraindik ere, arrazoi ugari daude borrokan jarraitzeko. Demokrazia eta justizia behar ditugu". Aldarrikatzen segituko dutela gaztatu zuten.

## Plataforma

#Altsasukoak Aske-koek gaztatu zuten auzipetuak zigortu eta haietako zazpi espetxean mantentzen dituen polizia-, hedabide-, politika- eta lege-muntaia dela. "Zertarako? Kriminalizatu, mendekua hartu, isilarazi eta eskubideak murrizteko". Plataformatik gaztatu zuten, "hiru urteotan gezurrik baino ez dugu entzun, eta guk egia plazaratu

dugu; justizia galdegin dugu eta injustizia besterik ez dugu jaso". Baina halako epairik ez dutela "irentsiko" gaineratu zuten.

Plataformatik epaiekiko errespetuarengatik men egiten duten talde politikoei mezua bidali zieten: "injustizia beti izanen da bidegabekeria, berdin da nork aginduta!" Bestetik, "hitzez hitz estoldetatik elikatuz terrorismo kontakizuna sortu duten hedabide handiendako" mezua ere izan zuten: "ezagutu zaituztegu eta ez dugu zuen gezurren konplize izan nahi". Azkenik, "muntai hau zuzendu, prestatu eta sortu" zutenei esan zieten ez dituztela isilaraziko eta eutsiko diotela.

Jasotako "hamaika elkartasun keinuak" ere gogoan izan zituzten: "lan gogorra egin dugu eta asko ikasi dugu. Sortu duguna aurrera egin dezan, gure kasuan edo gerta litekeen edozein kasutan". Kataluniari "besarkada" bidali eta "Euskal Herrian zein estatuan gurea bezalako injustizia sufritzen ari zareten guztioi elkartasuna" adierazi zuten plataformak.

## Bizikleta martxa

Altsasu eta Iruñea bitarteko bidea bizikletan egin zuen tropel batek larunbat goizean. Duintasunaren Martxa izena eman zioten Altsasu Gurasoak taldeak eta Altsasukoak Aske herri plataformak. Sinbolismoz betetako martxa izan zen. 156 txirindularik parte hartu zuten, Adurrek, Jokinek eta Oihanek aste horiek bete dituztelako preso. Bidean zortzi geldialdi egin zituzten, auzipetuak adina. Urdiain, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Lakuntza, Uhartea Arakil, Hiriberri, Irurtzun eta Berriozarren egin ziren geldialdiak. Bakoitzean auzipetu bakoitzaren irudia eta izena zuen kartela jaso ziren. Zigor handienetik txikienera jaso zituzten kartelak, hau da, Oihan, Adur, Jokin, Julen, Jon Ander, Aratz, Iñaki eta Ainara. Iruñekin batera geldialdi bakoitzean hizki bana jaso zuten, guztien artean Justizia hitza osatzen zutena. Batzuk eta bestek Iruñeraino eramane zituzten. Tropelaren helmuga ere propio aukeratu zuten antolatzaileek: Iruñeko Justizia Jauregia. Altsasuko Auziak handik ez zuela atera behar adierazteko.

Tropela adin guztietako sakandarrek osatu zuten. Baita Hego Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako txirindulariak ere. Parte-hartzaileek pedalei eragitea nahikoa ez eta herrietatik pasatzen zirenean Altsasukoak askatu moduko leloak oihukatu zituzten. Herri batzuetan besteetan baino harrera beroagoa izan zuten, baina guztietan izan zuen tropelak bakarren bat zain. Behin Berriozarrera iritsita bazkaldu egin zuten. 50 tortilla, 60 litro salda, 30 bizkotxo eta edaria zituzten zain. Guztia Berriozarko boluntarioek prestatutakoa.



Duintasunaren Martxa Sakanako errepedeetan.

## Hiru urte Altsasuko auzoko labirintoan barna

Plataformak Altsasuko auziaren hirugarren urteurrena gogorarazteko hainbat ekitaldi antolatu ditu azarorako

### ALTSASU

Azaroaren 14an hiru urte beteko dira Guardia Civilak sarekada egin eta hainbat gazte altsasuar atxilotu zituenetik. Orduetik preso daude Adurrek, Jokinek eta Oihanek, 1.083 egun egin dituzte gaur kartzelan. Aratzek, Iñakik,

Jon Anderrek eta Julenek, berriz, 549 egun egin dituzte preso. "Hiru hilabeteko ibilbide makur" hori gogorarazteko *Altsasuko auzia: hiru urteko labirintoa* izeneko programazioa prestatu du Altsasuko Aske herri plataformak azarorako.

Antolatzaileen izenean, Polentzi Goikoetxeak eta Izaskun Etxeberriak nabarmendu zuten, "aldarrikatzen jarraitu beharra daukagu eta justizia galdegiten segituko dugu. Oraingoan, kulturaren bidez: artista eta musikarien ahotsen bitartez eta hedabideetako profesional konprometitu eta kritikoen iruzkinen bidez". Egitaraua posible egin duten guztiei eskerrak eman zizkieten: "eskerrik asko zuen lana, ahots eta hitzen bitartez justizia hitza ozen plazaratzea-gatik".



## Egitaraua

### Azaroak 2, larunbata. Txikitasunetik egia erin musika jaialdia.

Hainbat gazte erakunde biltzen dituen Gazteok Altsasurekin taldeak aurkeztu zuen musika jaialdia lastailaren 16an.

Espainiako Auzitegi Gorenaren epaia ere salatu zuten. 25 talde pasako dira Burunda frontoiko eta haren parean jarritako karpako oholtzetatik. Sarrerak ldergi tabernan aurretik erostia 15 euro balio dute, bertan 18. Plataformatik parte-hartzaile eta laguntzaile guztiei eskerrak eman dizkiete.

15:00etatik aurrera Burunda frontoian, sarrerarekin: Aquemarropa, Nafarroa 1512, Txulapos Muertos, Against You, Azken Sustraiak, Eterns, StreetWise, Nucleo Terco, Habemus Papam, Sangre Salvaje, Takedown, Suzio 13, Sofokoa, Yakovlev 42, Asako 1312. Kultur gune pareko karpan: Iruñerria Jamaica Clash, Herriko Kings Sound, Thai 10:89, Pantx Oficial Selektors, Amunda Selektah, Yare Colective, Basque Reggae Kultur, Suai eta Ama Rebel, Jotatxo dj eta Zuretako Mezua. 19:30ean Ekitaldia karpan.

### Azaroaren 5etik 30era Santiago Sierraren "Presos políticos en la España contemporanea" erakusketa.

lortia kultur gunean, astegunetan 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara.

Erakusketa zuri-beltzeko 24 argazki osatzen dute, pixelatutako aurpegiak hainbat jarretako 74 preso politikori erreferentzia egiten diete, eta tartean Altsasuko auziko argazki bat dago. Erakusketa estreinakoz Madrilgo Arco azokan jarri zuten 2018an. Zentsuratu egin zuten eta kendu behar izan zuten. Santiago Sierrak mundu guztian erakutsi du bere lana. Kapitalismoa, esplotazioa edo lan merkatuaren baldintzak salatzen dituen lanengatik arte politikoaren arloan ezaguna da. Bere lanekin Sierrak erakunde artistikoaren natura bera ere zalantzan jartzen du. Erakusketaren jabe den Josep Maria Benetek utzita iritsiko da hura Altsasura.

Sierraren erakusketa ikusgai dagoen bitartean, Altsasuko Aske herri plataformak eta lortia kultur guneak parte hartzeko gonbidapena egin dute. Artelan kolektibo bat egitea proposatu dute. Pixelatutako pertsonen irudiak jaso nahi dituzte, denak elkartu eta kultur guneko fatxadan jartzeko. Erakusketan bertan azalduko dute nola parte hartu lan kolektibo horretan, baina aurreratu digutenez, telefono mugikorretako Instagram aplikazioa erabiliz egitea proposatuko da. Izan ere, aplikazio horren bidez argazkia egin eta pixelatzeko aukera ematen du. Halakoak jasota egin nahi dute murala.

### Azaroak 8, ostirala Altsasuko auziak ezkutatzen duena mahai-ingurua

18:30ean, lortia kultur gunean. Hizlariak: Aritz Intxusta (Gara), Joseba Santamaria (Diario de Noticias), Bea Talegon (Diario 16, La Republica, El Obrero, Cuatro, El Nacional...) eta Bertha Gaztelumendi (EITBn ariuta eta film zuzendaria). Moderatzailea: Xabier Lapitz (ETB 2). Kazetariak Altsasuko auzia aztertuko dute "bizi dugun errealitate politiko eta sozialaren testuinguruan: boterearen sistema, komunikabideak, talde politikoak, giza-mugimenduak..." Mahai-ingurua despeditzeko Gontzal Mendibilek bi abesti kantatuko ditu, horietako bat Altxa zu izanen da.

### Azaroak 24, domeka Aske musika jaialdia 19:00etan, Burunda frontoian.

Aske hitzaren pean, Miren Amuriza eta Dani Martirenak "dotorezia literarioz" gidatutako kontzertua izanen da, "ez baitira aurkezle soilak izanen". Oholtzatik pasako dira: Oreka Tx, Altsasuko Dantzariak, Aiora Erreterria, Jon Maia eta Hodei Barroso, Aurora Beltran, Tximeleta eta Lluís Llach. Sarrerak 5 euro balio du eta lortia kultur gunean aurretik salgai egonen dira.

### Azaroak 30, larunbata Altsasuko auzia: hiru urteko labirintoa programazioaren itxiera.

lortia kultur gunean azaroan antolatutako ekitaldien bideo-laburpena.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Indarkeriaren prezioa

Tristura eta itxaropena Kataluniatik azken bolada honetan etorritako albisteak entzutean eta ikustean. Tristura, beste behin ere, Estatuaren logika autoritarioa nagusitu delako. Itxaropena, jende tsunamia kalera atera delako justiziaren desjustizia salatzeraz.

Hala ere, batez ere Estatuak hedabideek ehunka milaka gizon-emakumeren askatasunerako gogoia eta erabakimena azaldu ordez, gerra kronika bailitzan, Bartzelonako barrikadetatik bertatik eskaini dituzte irudiak eta balorazioak. Reality show-a. Indarkeria eta txikizioa. Horrela, estali nahi izan dute ehunka milakakoen tsunamiaren egintza, ale gutxi batzuek egindako amorru protestekin identifikatuz. Gainera, ale gutxi horiek eragindako kalteei prezioa ere jarri diete.

Dena dela, jakina da "Indarkeria" mota askotakoa izaten ahal dela, hots, kriminala, fisikoa, psikologikoa, menperatzailea, bidezko defentsa, estatuarena, eta abar. Bestalde, Galtung-en hirukian erakusten denez, indarkeriaren esparru horretan bi eremu dira bereizgarriak: bata, agerikoa edo zuzena, izebergaren

### EZ DAGO ZUZENBIDEZKO ESTATURIK LEGEZKO ARAUTEGIA ETA JUSTIZIA BERA ERE AUTORITARISMOAREN ETA DESJUSTIZIAREN INDARKERIAN OINARRITZEN BADIRA

punta bezalakoa; eta bestea, ezkutukoa edo estrukturala, izebergaren ur azpikoa bezalakoa. Hori horrela, diskurtso burges eta espainolista nagusituta, indarkeria mota batez soilik hitz egiten da. Alabaina, indarkeria da langileak langabeziara edo txiroak izatera kondenatzea. Edo, frankismoaren oinordeko konstituzio batez kataluniarren eta euskaldunen naziotasun eskubidea zapaltzea. Edo, buruzagi politikoei hamarnaka

urtetako kartzela zigorrak jartzea. Edo, Altsasuko gazteei zigor bidegabea jartzea. Edo mozal legea nolana ezartzea.

Estatuak, Estatu arrazoiak tarteko, indarkeriaren monopolioa du. Politikariak, harropuz eta handiuste azaltzen dira, eta, epaileak, borrero. Trufa egiten dute ehun milaka pertsona Katalunian edo hamar milaka Altsasun indarkeria hori salatzeraz kalera ateratzen direnean. Ez dago zuzenbidezko estaturik legezko arautegia eta justizia bera ere autoritarismoaren eta desjustiziaren indarkerian oinarritzen badira. Norbaitek baloratzerik izanen du Estatuaren indarkeria horren prezioa?


## OBJEKTIBOTIK



Euskal Guda Zibila  
@EuskoGudaZibila

2023ko apirilaren 26a. Goiza. Inork ez daki nola oraindik, baina Ezkio-Itsasok eta Lur Komunalek Villabona-Amasa konkistatu dute.

Amaitu da gerra.



**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
Ainhoa Ebeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**  
María Luisa Alonso

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

**Maketatzailea:**  
lune Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

# "Inportanteena: helburua ongi bete genuen"

ARITZ GANBOA DE MIGEL ARTZAINA

Artzaintzaren ondareari aitortza egiteko Arruazu eta Izaba lotzeko erronka bete zuen arbazuarrek asteburuan. Bizitakoaren berri eman digu Ganboak.

Eneida C. / Alfredo A. ARRUAZU

Aritz Ganboa de Migelek lortu du bere buruari jarritako erronka betetzea: artzaintzari eta hari lotutako natur-, paisaia-, ingurune-, ekonomia-, kultur-, historia- eta giza-ondareari omenaldia egitea. Horretarako, bere familiaren, bi aldeen, aitaren Arruazu eta amaren Izaba, lasterka lotu zituen. Motxilan zerraman 1,205 kiloko gazta Izabako Marengo borda gaztandegiko Marinaren eta Ossau-Iratyko gaztekin trukatzeko aukera izan zuen, 170 km eta 27 orduko ibilbidea egin ondoren. Ganboak ibilbide guztian Iker Karrera izan zuen lagun.

**Aurpegi onarekin iritsi zinen Izabara. Zer moduz?**

Zalantza guztiak uxatu ziren lasterketa aurrera zihoala. Une txarrak ere pasa genituen. Azkenean, hain lasterketa luzean, bizkar gainean neraman zamato hori kontuan izanik, une latzak ere tokatu zitzaizkigun. Baina, orokorrean, oso ongi atera zen. Eguraldiak asko lagundu zigun. Baita jendeak ibilbidean zehar ere. Herri ia guztietan eta ibilbidean zehar beti animoak emateko prest zegoen jendea opatu genuen bide bazterrean. Sorpresatxo ugari aurkitu genituen ere. Horrek motibazioa mantentzen dizu, eta asko laguntzen du. Gainera, Iker Karrera eskarmentu handia du eta berak markatu zuen erritmoa. Berak lagundu zidan. Oso erraza izan zen berari segitzea. Eta momentu txarrak izan genituenean ez genituen batera eduki. Berak txarrak eduki zituenen ni ongi nindoan eta alderantziz. Batak besteari lagundu genion. Erretiratzeko edo ez bukatzeko une latzik ez genuen izan.

**Hori garrantzitsua da, ez?**

Bai, azkenean buruak agintzen baitu. Buruak esaten ziguna zen: beteko dugu. Zalantza zen zein denbora egingen genuen. Denbo-



Aritz Ganboa De Migel Aralarren egindako geldialdian. AMAELUR

## "KIROLA EZ ZEN HELBURUA. HASIERATIK OSO GARBI GENUEN BESTE BATZUK ZIRELA"

ra kudeatzen egon ginen. Oso azkar hasi ginen, markatutako erritmoak baino askoz azkarrago gindoazen, konturatu gabe. Ez genuen horren sentsazioirik. Azkenean geldialdiak egin behar izan genituen zegokigun orduan iristeko. Orhi menditik jaisterakoan pixka bat estutu behar izan genuen, garaiz iristeko. Hala izan zen. 11:00etan Izaban geunden. **Geldialdiak egin behar izateak zein ondorio izan zituen?**

Geldialdi batzuk oso onak izan ziren. Baina beste batzuk oso txarrak. Erritmoa hartuta zaudenean, ongi zoazenean, gelditzeak ez du merezi. Giarretan kristalizazio batzuk izaten dira eta gero horrek haustura txikiak sortzen ditu. Higadura handiagoa da. Lasterketan zehar egin genituen geldialdi ugari egin ez bagenu muskularki askoz hobe egon geninateke. Baina geldialdi

luzexkago batzuk egin genituen eta horiek hankendako oso onak izan ziren. Azpimarratu behar da kirola ez zela helburua. Hau ez zen lasterketa bat, erlojupeko bat. Honek beste helburu batzuk zeuzkan. Hasieratik oso garbi izan genuen. Hori oso garrantzitsua izan zen. Gure helburua zen kontuan izanik geldialdi horiek ezinbestekoak ziren. Agertzen zen jendearekin pixka bat gelditzea, agurtzea eta egotea oso-oso garrantzitsua zen. Helburua ongi bete genuen. Hori da inportanteena.

**Nolako sentsazioa da 06:30ean Orhiko gailurrean egotearena?**

Oso une polita izan zen. Gure frontalen argiak itzali genituen eta tarte batez gelditu ginen han, isil-isilik. Ipar Euskal Herria argizatuta ikusten zen, Baionatik Larrañeraino. Egunsentian iristeko asmoa genuen, bertan egunsentia ikusteko. Oso momentu hunkigarria. Ordubete lehenago iritsi ginen eta hango hotzak ez zigun egunsentiari itxaroten uzten. "Ikusi mendizaleak" kantatzen igoginen. Hori oso une polita izan zen. Larraura jaitsi ginen, han denbora egiteko.

**Izabakoa nolako izan zen?**

Nire bi jatorriak ordezkatzeko duen jendea Izaban egotea, niretako izugarria izan zen. Bazkari baten bueltan Sakanako eta Erronkariko jendetza batuta ikustea, hori oso polita niretako. Uste dut han egon ginen guztiek oso une hunkigarriak bizi izan genituela.

**Baina?**

Sakanako Garapen Agentziari esker Arruazutik Izabarako autobusa antolatu zen, baina autobusa ez zen agertu. Arruazun zain egon zirenek ez zuten autobusean joateko aukerarik izan. La Burundesak ez zuen agendan altan eman hitzartutako autobus zerbitzu hori eta ez zuen autobusa bidali. Nahiz eta aurretik hitzartuta izan. Guretako sorpresa izan zen. Arruazun antolatzaileak ere zeudelako. Izabako iritsiera momenturako beharrezko azpiegiturak ere autobusez eramatekoak ziren. Esan beharra dago momentuan jendea oso ongi antolatu zela autoetan. Inprobisatzeko gaitasuna dugu. Azkenean ez zen sumatu. Giroa bikaina izan zen. Jendeari barkamenak ematea. Baina eskerrak ematea ere, han bizi genuena betirako geldituko zaigulako.

**Nola zaude? Nolakoak izan dira hurrengo egunak?**

Errekuperatu beharra dago, bai muskuluak, halako erronka bat higadura handia delako, bai barrutik, giltzurriak, gibelak, urdaialak eta pasada ederra hartzen dutelako. Orain bi aste-ko errekerazioa beharko dut. Adi egon beharko naiz ezer txarrik jasan nahi ez badut. Baina oso ongi sentitzen naiz. Primeran. Hankak ongi ditut. Ez dut ezer berezirik nabaritu. Bestetik, dokumentalaren grabaketa, edizioa, muntatzea falta zaigula. Fase oso luzea dator kigun gainera. Nahikoa potentzia. Beraz, guretako erronka ez da bukatu. Fase bat bukatu da, baina aurretik erronka potoloa daukagu.

**Bideak dokumentala 2020 urtean mustutzeko asmoa duzuela aurreratu duzue, crowdfunding kanpaina noiz itxiko duzue?**

Azaroan itxiko dugu ([www.bideakdokumentala.eus](http://www.bideakdokumentala.eus) web orriaren bidez egin daitezke diru ekarpenak). Sare sozialetan zabalduko dugu eta fase hori bukatutzat eman nahi dugu. Eta jaso dugun diruarekin aurrera egingen dugu. Eta behar duguna, bestela, guk jarri, eta fuera.

## Konpostatze planta egiteko beste pauso bat eman da

Nafarroako Gobernuak Arbizuko hondakindegian konpostatze planta egiteko herri lurren desafektazioa onartu zuen herenegungo bilkuran. 15.000 metro karratu dira guztira. Beraz, Arbizuko Udalaren erabilera publikoa, herri lur horiek, Sakanako Mankomunitatearen esku geldituko dira eta han konpostatze planta egingen du. 20 urterako utziko zaizkio lurak Mank-i, eta bosna urteko epeetan luzatu daiteke lurren uztea, beti ere, 30 urteko mugarekin. Lurak erabiltzeagatik Mank-ek Udalari 39.000 euro ordaindu beharko dizkio. Mank-en aurtengo aurrekontuan lan hori egiteko 832.000 euro bideratuko ditu. Inbertsioa % 100ean Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planak eta Nafarroako Hondakinaren Partzuergoak pagatuko dute.

Abiadura Handiko Trenaren egitasmoaren eragin eremuan zegoen aurreko proiektua eta Mank-ek eta udalak proiektu berria adostu behar izan zuten.

## Tafallaldeari elkartasuna adierazi diote hiru udalek

Garilaren 8ko eurite handiek eta Zidakos ibaiak gainezka egiteak kalte handiak sortu zituen Tafalla aldean. Administrazio publikoak natur-hondamendiak eragindako kalteak lehengoratzeko lanean hasiak dira, baina eskualdearekiko ekonomia-elkartasuna beharrezkoa dela iritzita Arakilgo, Lakuntzako eta Arbizuko Udalek diru-laguntza ematea erabaki zuten. Aurrena eta atzenak 1000na euroko laguntza eman diote eskualdeari. Lakuntzako Udalak, berriz, 2000 eurokoa.

Bide batez, Arakilgo, Lakuntzako eta Arbizuko udalek kalteak izan diren herriei beraien elkartasuna adierazteko auzolan ekonomikoan parte hartzera animatu nahi dituzte arakildarrak, lakuntzarrak eta arbizuarrrak.

Euriteak eta uholdeak kalte-tutako herritarrei edo udalerriei elkartasuna adierazi diete ere, bereziki, urak eramanda itota hil zen gazte iruindarraren senitartekoei.



Paleta ia beteta. JP HIGUERO

## Errefuxiatuendako jakiak jaso dituzte Zaporeak-eko kideek

Zaporeak elkarteko kideek jaki bilketa egin zuten Altsasuko Eroski supermerkatuetan larunbatean. Hiru palet jakiz bete zituzten eta altsasuarrei eta sakanadarrei solidariorik izateagatik eskerrak eman zizkieten. Jaki horiek Greziako Lesbos uhartera bidaliko ditu Zaporeak elkar-teak. Han egunero 1.300 errefuxiatuendako jatekoak prestatzen ditu Zaporeak-ek.

# Euskara ezagutza eskaera ontzat eman da

Afapnak hura baliogabetzea eskatu zuen "neurrigabea eta justifikatu gabea" zelako. Altsasuko polizia-etxeke bi foruzain lanpostu hutsen eta Nafarroari zerbitzu ematen dieten lau suhiltzaile bete gabeko posturen euskara ezagutza kentzea eskatu zuen

SAKANA

Nafarroako Gobernuak 2017ko azaroaren 28ko 109/2017 Foru Dekretuaren bidez foru administrazioko eta bere erakunde autonomoetako plantilla organikoa aldatu zuen. Haren bidez, betetzeko zeuden lanpostu batzuetan Nafarroako Gobernuak euskara eskakizuna sartu zuen. Esaterako, Altsasuko polizia-etxeke bi foruzain lanposturi eta Iruñeko suhiltzaileen parke zentraletik Nafarroa guztira zerbitzua ematen duten lau suhiltzaile lanpostu hutsendako.

Afanpak erabakiaren kontra epaitegietara jo zuen, Foru Dekretua baliogabetu asmoz. Sin-



Altsasuko polizia-etxea. ARTXIBOA

dikatutik argudiatu zuten lanpostu horietarako egindako euskararen ezagutza "neurrigabea eta justifikatu gabea" zela. Afapnak argudiatzen zuen foruzain eta suhiltzaile plazak ez zeudela hizkuntza eremu jakin bati lotuta, eta behar bezala arrazoitu gabe zeudela. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak atzo jakinarazi zuen ez duela Afapnaren eskaera onartu. Epaileek ondorioztatu dutenez, "plaza elebidunen kopurua neurrigabea edo justifikatu gabea dela esateko ez dago frogarik".

Auzitegitik adierazi dute Foruzaingoko bi lanpostu huts Altsasuko polizia-etxekeak dire-

la (gainontzekoak Elizondo eta Lizarra) eta beraz, "kalean betetzen dituzten funtzioetan publikoari arreta egokia eskaintzeko, hitz egiteko, Dekretuak zehazten duen euskara profil eta maila hori behar da". Epaileek gogoratu dute lanpostuak eremu eskaldunean eta mistoan daudela.

Suhiltzaileen lanpostu hutsen inguruan ere argudio berak errepikatu dituzte epaileek, Iruñeko zerbitzu zentralerako suhiltzaileek Nafarroa guztian lan egiten dutelako: "hitzezko komunikazioaz ari gara eta, beraz, euskaraz hitz egitea eskatzen duenari suhiltzaileekin hala hitz egiteko aukera eman behar zaio". Hezkuntza Departamentuak eta gainontzeko departamentuek lanpostu elebidunak zehazterakoan egoki arrazoitu dituztela gaineratu dute epaileek. Epaiairen kontra kasazio-errekurtsoa aurkeztu dezake Afapnak.

Afapna sindikatuak euskara eskakizuna 100 lanpostutik kentzea eskatu zuen. Hezkuntza Departamentua kenduta, gobernuaren lantaldearen % 1,7k besterik ez dute euskara ezagutzeko eskakizuna.



 Bel Pozueta

**Bozkatu**  
Vota

**ehbildu**

**Bel**  
**BAIETZ!**

**Oraingoan**

**BAIETZ!**

## Gazte eguna ospatuko da seigarrenez Irurtzunen

Gaur Larrazpi gazte elkartearen izanen dira ekitaldiak eta bihar Barazkigunean

### IRURTZUN

Irurtzun eta Arakilgo Gazte Asanbladak antolatu du VI. Gazte Eguna. Irurtzuno, Arakilgo eta inguruko gazteen topalekua sortu nahi du Irurtzun eta Arakilgo Gazte Asanbladak antolatutako egitarauarekin.

Hasteko, gaur, 19:30ean, *La lluita en la mochila* dokumentala emanen dute. Ikus-entzunezkoak El Salvadorreko gerrillarekin borrokatzera joandako Elisendaren ("Blanca"), Begoñaren ("Alba") eta Martaren ("Begoña") bizipenak kontatzen ditu. "Hiru-



Gazteak Barazkigune parean. IAGA

rak borroka bizkarrean hartuta joan ziren, bere ekintza eta keinuekin erakutsiz elkartasuna herrien arteko goxotasuna dela". Ondoren 21:30ean afari musikatua izanen da. Afaldu ondoren Enara Urria irurtzundarrak eta Andrea Cuestak kontzertua emanen dute.

Gazte eguna bihar izanik egitaraua ere zabalagoa da. 12:00etan jarri dute gazteek hitzordua, pintxo-potean aritzeko. 14:30ean mahaira eseriko dira, bazkaltzera. Handik ez dira bingo musikatua despeditu arte jasoko. Horretarako baliatuko dituzte Kejapunkera elektrotzarangaren doinuak 19:00etan. Kalejiran ibili eta gero, 21:30ean afaria izanen da. Indarberrituta, 23:00etan, D-Rais, Barne Gaua, Kimera eta Djungle taldeen kontzertuak hasiko dira.

## Haurrek euskara erabiltzen ez dutelako kezkatuta?

Horren inguruko hitzaldia emanen du Iñaki Eizmendik astelehenean, 19:00etan, Iñigo Aritza ikastolan

### URDIAN / ALTSAS / OLAZTI / ZIORDIA

Gaztelania eta euskara ofizialak diren gizarte batean bizi gara. Baina bi hizkuntzen egoera soziala desberdina denez, horrek ikaste prozesuan baita erabileran ere eragina du. Guraso euskaldun askoren kezka da euren seme-alabek lagunekin biltzen direnetan euskara gutxi erabiltzen dutela. Horren jakitun, Iñigo Aritza ikastolak euskararen erabileran eragiteko egitasmoen sustatzaile den Iñaki Eizmendi Arsuagaren hitzaldia antolatu du.

Eizmendik gidatutako saio horretan hainbat aspektu aztertuko dira. Batetik, euskararen erabileraren atzean dagoena. Bestetik, hizkuntza-ohituen oinarrian zer dagoen azalduko du. Aldi berean, hizkuntzak nola aukeratzen diren ere. Seme-alabek lagunartean eta beste harremanetan euskara erabiltzen laguntzeko gakoak emanen ditu. Eta irakasleen euskararen erabilera sustatzeko ahaleginari gurasoek edo guraso taldeek nola lagundu diezaioketen ere aztertuko du.

## Arakilgo Haurren eguna Etxarrenen larunbatean

Arakilgo Udalaren udazkeneko agendan hutsik egiten ez duen hitzorduetako bat da Haurren eguna. Ibarreko herrietan barna txandakatzen den ospakizun hori aurten Etxarrenen izanen da. Arakil ibarreko txikiendako ekintzak Tramankolo haur jolasekin saioarekin hasiko dira. Igor eta Miren izanen dira haiek dinamizatzen. Jolasten majo pasa eta gero txokolate-janaren txanda izanen da, 18:30ean. Eta Haurren eguna despeditzeko Izaskun Mujika ipuin kontalariaren saioa izanen da. Arakilgo udazkeneko agendan hurrengo hitzordua Hiriberrin ospatuko den Euskararen eguna izanen da, hilaren 30ean.



JUAN PEDRO HIGUERO

## Errefuxiatuak, eta gehiago

Sakanako Herri Lasterketa Etxarri Aranatzan jokatzeko zela aprobetxatuta, aurreko urteetan bezala, lasterkarien ibilbidea baliatuta, "Ongi etorriak errefuxiatuak oinezko martxa" 22 pertsonen egin zuten. Haien egoeraz Hel-Na eta Sakana Harrera Harana elkarteek gaztigatu zuten. Magrebgo zapoak dastatzeko aukera eman zuten etxarriar berriek.



## Udazken festa ederra

Giro ederra sortu zuen udazken festak Iturmendin larunbatean. Eguraldia, lagun, herriko gazteak arduratu ziren guztia antolatzeaz. Eta iturmendiarrez aparte, aldameneko herrietatik ere hurbildu zen jendea. Jendearen erantzunak ezustean harrapatu zituen antolatzaileak. Zikiroa bazkaltzera 75 lagun elkartu ziren. Ordu txikiak arte izan zen parranda.

ONLINE ENTZUTEKO  
WWW.GUAIXE.EUS

**AIREAN**

107,3 FM

**BELEIXE  
IRRATIA**

SAKANAKO IRRATI  
EUSKALDUNA



Eneida C. / Alfredo A. IRURTZUN

Dinabide, eraldaketa digitalera-ko Sakanako espazioa, teknologia berrietara egokitzeko eta arlo berri horietan pertsonak trebatzeko ikuspegiarekin sortu da. Sakanako Garapen Agentziak (SGA) Dinabide erabiltzeko hiru modu zehaztu ditu: lanaldi osoan, lanaldi erdian eta 5 eguneko txartelak erosita. Hainbat prezio-tako txartelak daude eta denak ere arrazoizko prezioan eros daitezke. Era berean, enpresa sortu berriei deskontuak eginen dizkiete. Aldi berean, Dinabideko erabiltzaileek, coworkerrek, tutoretza- eta aholkularitza-zerbitzuak ere erabili ahal izanen dituzte, Ceinek, Anelek edo Cederna Garalurrek emanen dituztenak. Zerbitzu horiek Sodena bidez finantzatzeko aukera izanen dute. SGAREN helburua da Dinabideko elkarlan gunean berri-komunitate bat sortzea, 4.0 teknologietan aditua eta eskualdearen beharrei erantzuten diona.

**Eraldaketa digitala bulkatzeko pauso handia. Zertan datza pauso handi hori? Zergatik?**

Eraldaketa digitalaren erronkari nola erantzun behar genion lantzen urte batzuk daramatzagu, Dinabide proiektuak osotasunean zein hanka eta zein buru izan behar dituen definitzen. Proiektu hori orain gauzatuko da. Proiektuak dauzkan hiru hanketako bat, kasu honetan coworking-a, ireki eginen da eta erabiltzaileen eskura jarriko dugu.

**Hiru hanketako bat. Gainontzeko biak?**

Eraldaketa digitala sustatzeko Dinabide proiektuak hiru hanka ditu. Batetik, prestakuntza ego-kia izatea eraldaketa digitalari aurre egiteko, teknologiararen ezagutzan bereziki. Bestea da proiektuak identifikatzea, enpresek edo ekintzaileek estrategia bat definitzeko proiektuak. Eta, azkena, enpresak edo ekintzaileak espazio bat izatea, coworking-a izatea, berritzaileak diren teknologia horiek ezagutzeko, haiekin "jolasteko", eurek garatutako produktu edo zerbitzuek gure industria sarean premiei erantzuteko.

**Zer aurkituko dugu Dinabideko coworking gunean?**

Dinabidek bi espazio ditu. Bata coworking gunea da. Lana elkarbanatzeko espazioa izanen da. 16 lanpostu dauzka. Horiek, mahaia

# Dinabideren elkarlan-gunea erabiltzaileak hartzeko prest

**AINTZANE IRIBERRI BERROSTEGIETA** SGAKO ENERGIA ETA INDUSTRIA ARDURADUNA Autonomo, enpresa eta ekintzaileei zuzenduta dago, eraldaketa digitala bultzatzera bideratutako produktuak, zerbitzuak edo negozio-ideiak garatzeko espazioa da



Inasa zeneko bulego eraikinean dago Dinabide. Astelehenean zabalduko ditu atak.

eta aulkiaz aparte, Internet konexioa eta fotokopiagailua izanen dute. Bertan trebakuntza gela bat dago, proiektagailuz, pantailaz, mahaiz eta aulkiz hornitua. Biler gela ere badu coworking espazioak. Baita kutxatilatzea eta office txiki bat ere. Bestaldean tailerra dago eta fabrikatze eransgarriko makinak (3D inprimagailuak-eta) izanen ditugu. Coworking-era joaten diren enpresa edo ekintzaileek aukera izanen dute euren prototipoak, makinak probatzeko eta garatzeko. Baita gure teknologietan euren produktuak diseinatzeko eta eratzeko ere. Oinarri gisa polimeroekin (plastikoa) egiten den fabrikatze eransgarria jarri dugu. Ekintzaile horiek irudikatzen dituzten produktuak bertan fabrikatu ahalgo dituzte.

**Nola kudeatuko da hori guztia?**

Epe motzean SGA izanen da espazioaren kudeatzailea. Hasiara da eta lehenengo egin behar duguna da Dinabide proiektua elikatzea, forma eman eta espazioa proiektuz, ideiez eta ekintzailez eta enpresez bete. Edozeinek eraldaketa digital edo coworking proiekturen bat baldin badauka, [www.sakanagaratzen.com](http://www.sakanagaratzen.com) web orrian sartu, Dinabideren coworking espazioko eremuan klikatu eta eskaera-orria deskargatu dezake. Han bere proiektua aurkeztu beharko du. Oraingoz SGA da, gure aholkulariekin, erabakitzen duena aurkeztutako proiektua bateragarria den edo ez. SGAREN papera dinamizazioarena izanen da, proiektu desberdinek zein erlazio izan dezaketen bai euren artean bai gure enpresek. Coworking-ean sartzera-koan baldintza gisa jarri dugu erabiltzaileek hilabetero lau ordu eskaini behar dizkiotela SGAREN proiektuei. Guk identifikatzen badugu enpresa batendako interesgarria dela zerbitzu bat edo produktu bat garatzea eta hori coworking-ean baldin badugu, komunean jarriko dugu eta erlazio horiek sustatzen saiatuko gara.

**Eta epe ertain edo luzera?**

Eragile publikoekin eta pribatuekin lanean ari gara. Guretzat Dinabide bulkatuko duena entitate independentea izan behar du. Bai alde publikotik bai alde pribatutik egon behar du elikatuta. Nafarroako proiektzioa landuko dugu.

**Dinabidek badu babes, ezta?**

Gobernuarena. Nafarroako Industria Fundazioaren eta Nafarroako Ingeniarren Elkargoaren bidez Nafarroako enpresa batzuen gaitasunak erakartzeko atak zabalitzen dizkigu. [+guaixe.eus](http://+guaixe.eus)

## LAN ESKAINTZA



### 2019/2020 IKASTURTERAKO ORDEZKAPENA

Andra Mari ikastolak 2019/2020 ikasturtean hilabete bateko ordezkapen baterako ondorengo profila duen ingeleseko irakasle baten beharra du:

- Ingeles Filologia.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza Masterra.
- EGA edo ballokidea

Ordezkapena lanaldi osokoa da.

Interesa izanez gero, curriculumak Andra Mari ikastolako web orrialdoko "Lan Poltsa" atalean sartu ([www.andramariikastola.eus](http://www.andramariikastola.eus)) azaroaren 3ra arte.



Urdaingo kanposantutik dagoen ikuspegia. ARTXIBOA

# Hilerriak, bisita merezi duten tokiak

Domu Santu eguna da gaur eta, defuntuak gogoan, jendetza joanen da kanpo santuetara. Ibarreko hilerriek askorako ematen dute eta, arrazoi bat dela bestea dela, hainbatek bisita merezi dute

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Baratzetako loreak ez badira, lore-dendakoak. Horiek eskutan sakandar ugari kanpo santutarako bidea hartuko dute gaur, nahiz eta batzuk zubiagatik lanak aurreratu dituzten. Etxeko eta gertuko hildakoak gogoan haien hilobiak bisitatzeko eguna da azaroaren lehena. Gaurko dena prest egoteko hilobiak eta hilerriak garbitu dituztenak ere izan dira.

Herri adina hilerri daude Sakanan, 28. Eta arrazoi bategatik edo besteagatik kanpo santu horiek bisitatzeko aitzakiak badaude. Ekialdeenean dagoen herria da **Aizkorbe** eta bere hilerria Aginagako mugatik 250 metro eskasera dago. **Irurtzungo** hilerrian bada nabarmentzen den panteoi bat, beste askok bezala, ez behar baten istorioa atzean duena: kamioi batek kanpoko haur ijito bat harrapatu zuen. Familiak aseguruarekin panteoia eraiki zuen, eta sendikoak hiltzean han lurperatzen dituzte.

1922an zendutako haur baten hilerria dago ere.

**Errozko** kanpo santua kasik Oskiako harrobiaren azpian dago. Hura kudeatzen duen enpresaren lurretatik pasa behar dute errozdarrek hilerriara joateko. Bestetik, Erroztik abiatuta **Urritzolako** "portua" igo eta gainera iristean, eskuinera, dermioko bide bat dago, kaskailuzkoa. Bidean aurrera egin, abeltzgia pasa eta berehala topo egingen dugu hilerriarekin. Autoz joan badaiteke ere, Urritzolakoa Sakanako hilerri bakarra da hara joateko porlanezko edo asfaltzoko biderik ez duena. Izurdiagak herri gunea bitan zatituta du eta San Juan auzotik gertuago dago kanposantua, Nafarroako Autopistari (AP-15) pega-pega eginda. **Etxeberrikoa** basoan gordeta dago. **Etxarreenen, Ihabarren, Uhar-te Arakilen** eta **Iturmendiren** kasuan Sakanako Autobiaren (A-10) azpitik pasa behar da hilerriara joateko. Azken horren gainetik pasa behar da Bakaiku-

kora joateko. Soro batek banatuta, 200 metroko distantzia ere ez dago Zuhatzuko eta Satrustegiko kanposantuen artean. Soro artean dauden beste batzuk **Hiriberrikoa, Irañetakoa** (herrien mendebaldera) eta **Lizarragakoa** (ipar ekialdera) dira.

**Uharte Arakilen** musikari handia izandako Felipe Gorriti Osanbelaren hilobia bisitatu daiteke. Bestetik, bi dira elizatik bertatik bertara kanposantua duten herriak: **Arruazu** eta **Dorrrao**. Gehiago dira hilerria ermita baten ondoan duten herriak: **Ekain** San Lorentzo, **Satrustegin** Santa Barbara, **Ihabarren** San Juan Bautista, **Lakuntzan** San Antonio Abad, **Unanun** San Andres, eta **Altsasun** Otadiko

**ERROZKORA JOATEKO HARROBIA KUDEATZEN DUEN ENPRESATIK PASA BEHAR DA**

Kristo Deuna. Itxasperri ermitaren parean, iparraldera dago **Egiarretako** hilerria. Olatzagutiko elizaren eta hilerriko ateen artean 200 metro besterik ez daude. 100 eskasera daude **Zior-diko** eliza eta kanposantua.

Munduan kanposantu gutxi izango ziren anarkiaren A hizki handi bat hilarri batean zutenak. **Lakuntzan** halako bat egon zen eta Lazaro Alegria Lazkarai anarkistaren hilerria zen. Lakuntzarra 1936ko estatu kolpearen ondoren atxilotu zuten eta Etxarriko kuarterera eraman zuten. Garilaren 28an beste lau sakandarrekin batera Atondora eraman eta han fusilatu zituzten, Oskiako txipudian. Lakuntzako hilerriko lanak egin zirenean familiak hilarria hartu eta euren jabetza batera eraman zuten.

**Arbizuko** hilerritik paseoa bat egitea merezi du. Hildakoak lurperatu egiten dituzte eta jarritako hilarri ugari eskulturatik asko dute. **Etxarriko** kanposantua askok toki izenarekin izendatzen dute: Utzubar txiki. Euskal gatazkaren ondorioz han daude ETAk hildako Jose Luis Ulaiar Liziaga eta ETako kide izandako Juan Inazio Erdozia Larraza, Pello Mariñelarena Imaz eta Josu Zabala Salegi.

**Bakaikun** ibarreko oroigarri altuena dago. Aldameneko zipresaren kontrapuntua, porlanezko zutabe borobil baten gainetik, bere mendira begira dagoen Aralarko aingeruaren irudi bat dago, defuntu bakaikuar guztiak zaintzen dituela dirudiena.

**Urdainen** hilerriaren partzelazio berria eta dena maila berean egiteko lanak duela bi urte egin zituzten. Horren ondoren bost panteoi besterik ez dira gelditu, jabetzan zeudenak. Alokaturakoak kendu egin zituzten. **Altsasuko** kanpo santuan, berriz, gainontzekoetan baino panteoi gehiago izan ziren, Sueskundarrek merkeago egiten zituztelako. Beste herrietan ez bezala, Altsasun panteoiek ez dute gizarte maila islatzen. Kapera 1909koa da.

1936ko estatu kolpearen ondoren Otsaportilloko lezean eraildako bi gizona zori duintasunez lur eman diete **Olatzagutiko** hilerrian: Meliton Agirre Lezea (2017ko azaroaren 18tik kanpo santuan) eta Migel Vergara Beureau (2018ko garagarriaren 30etik hilerrian). Bestetik, sartu eta eskuinera mende bat pasa duten panteoiak daude.

## Suizidioa aztergai izanen dute hitzaldi batean

Osasunaren Mundu Erakundeak sustatuta, Adimen Osasunaren Eguna ospatu zen lastailaren 10ean. Aurten egunak suizidioen prebentzioa ardatz izan zuen, "osasun publikoan lehen tasuna duen gaia baita". Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuenez, herrialdean 39 pertsona suizidatu ziren joan den urtean. 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean suizidioa da bigarren heriotza kausa.

Horren jakitun, Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak herritarrei zuzendutako jardunaldiak antolatu ditu, foru administrazioaren laguntzaz. Antolatzaileek "existitzen den gaia mahai gainean jarri" nahi dute, "informazioa eman, zalantzak argitu eta alorrean lan egiten duten berri" eman ere. Horretarako, mahai-inguru batera hiru hizlari gonbidatu dituzte: suizidioan aditua den Gabriel Gonzalez kazetaria, gertuko pertsona baten suizidioak minduta gelditu diren pertsonen babes ematen dien Besarkada elkarte-ko Elena Ainsa eta Telefono de la Esperanza elkarte-ko Alfonso Etxabarri psikologoa.

Aipatu hitzaldia asteartean izanen da, 18:30etik 20:30era, Altsasuko Iortia kultur guneko areto txikian.

## "Salbuespenezko" espetxe politikaren salaketa

Jose Anjel Otsoa de Eribe preso asteartean hil zen. Arabako preso Mexikon atxilotu zuten 2000. urtean eta ordutik preso zegoen. 2016an bete zituen ezarritako espetxe zigorraren hiru laurdenak. 2015etik Otsoa de Eribek minbizi larria zuen. Urtebete baino gehiago behar izan zuten gaixotasuna atzemateko. Larri gaixo egonda ere garilaren 5era arte ez zion baldintzapeko askatasuna eman Espainiako Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzak. Presoaren heriotza salatze-ko Etxarri Aranatzeko eta Altsasun kontzentrazioak egin ziren. Sarek Gasteizko Artiumetik larunbatean, 17:00etan, abiatuko den manifestaziora deitu du.



Lakuntzako udaletxea. ARTXIBOA

## Dagoeneko Franco ez da Lakuntzako seme-kuttun

Udalak 1948an hartutako erabakia indarrrik gabe utzi du udalbatzak astelehenean egindako bilkuran

### LAKUNTZA

Lakuntzako udaletxean udal bilkurak daudenean normalean ez da jenderik joaten. Baina astelehenekoa desberdina izan zen. Jende mordoxka bat udalak hartutako erabakiaren lekuko izan nahi baitzuen: Francisco Franco Bahamonderi herriko seme-kuttun izendapena baliogabetzea. 1948ko ilbeltzaren 14tik zuen izendapen hori diktadoreak. Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkin Sagastibeltzak gogoratu zuenez, "1936ko estatu kolpearen ondoren herrian fusilatu bat eta hainbat errepresaliatu izan ziren, baita 78ko erregimenaren biktima bat ere, Mikel Arregi Marin. Horregatik errekonozimendu hori berehala atzera botatzeko erabakia hartu dugu".

Nafarroako Memoria Institutuak gaztigatu zion Lakuntzako Udalar diktadoreak aitortza hori zuela, eta haren gomendioei se-

gituz izendapena indarrrik gabe uztea erabaki zuen. Izan ere, 33/2013 Foru Legeak "frankismoaren errepresioak Nafarroan hildako edo haren biktimak izan ziren pertsonen lotutako memoria historikoa berreskuratzea" du helburu. Legeak "betebehar publikoak eta erakunde pribatuak finkatzen ditu ikur, koadra eta aipamen frankistak kentzeko orduan", baita "aitorpen, izendapen, titulu eta ohore instituzionalen baliogabetzean ere".

Diktaduran zehar seme-alaba kuttun titulua ematea ohikoa zen, Francori eta erregimen frankistari lotutako beste pertsona batzuei, "beren lana eskertzeko". Horregatik, batzordeak seme-alaba kuttun izendatzeko erabakia baliogabetzeko gomendatu zuen, edozein erakundek sustatutako giza eskubideen urraketa-prozesuetan nolabaiteko erantzukizuna izan dutenei.

# Obretako makinak bueltan izanen dira aurki

Estafeta, Elizalde, Arrano Beltza, Konsistorial eta Zirrirkale kaleetako sareak eta zorua berritzearekin batera, berokuntza sistemaren lanen aurreneko fasea egiteko ere baliatuko da

### ITURMENDI

Iturmendiko alkate Victoriano Gabirondo Lanzek azaldu digunez, "berehala" hasi nahi dituzte herrian egin beharreko lanak: Zehazki Estafeta, Elizalde, Arrano Beltza, Konsistorial eta Zirrirkale kaleetako euri uren eta ur beltzen sareak banatu eta gainontzeko sareak eta zorua berritzea, kaleotako argiteria publikoko kableak lurperatu eta egungo bonbillak LED argiengatik ordezkatzeko eta berokuntza sistemako hodiak jartzea. Lanak Construcciones Beroste SA enpresak egingen ditu 346.500 euro (BEZ kanpo). Lanak egiteko hiru hilabete izanen ditu enpresak. Beraz, udaberrirako kaleak mustutzeko aukera izanen dute iturmendiarrek.

Sareak eta zorua berritzeko lanen % 70 Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planaren bidez pagatuko du udalak. Sakanako Mankomunitatearen ardura da urarekin zerikusia duten sareak eta horregatik 56.800 euro inguru jarriko ditu. Gainera, kaleotako argiteria publikoko kableak lurperatu eta egungo bonbillak LED argiengatik ordezkatzeko Iturmendiko Udalak 40.000 euro ditu jasoak aurrekontuan. Herriko aurreneko LEDak izanen dira



Konsistorial kalean herriko azienda ikusgai jarri zuten larunbatean.

### Berokuntza sistema

Enpresak egiteko lanen artean dago berokuntza sistemako hodiak jartzea ere. Gabirondok azaldu digunez, lan horiek proiektu handiago baten aurreneko fasekoak dira. Izan ere, udalaren asmoa da herriko basoetako egurra ezpal bihurtzea eta berokuntza sistema zentral baten bidez udaletxea, eskola zaharra eta gaztetxea berotzea eta ur beroa eramatea. Horretarako, lurpean bi hodi zabalduko dituzte. Lanak egingen diren kaleetako etxejabeek ere aukera izanen dute euren

etxebizitzak sistema horretara lotzeko. Horrela, etxea berotu eta ur beroa jasotzeko aukera izanen dute. Horretarako, etxe bakoitzaren parean arketa jarriko da, bi hodietarako lotura egiteko aukera izateko. 25 bat etxe dira, baina berokuntza sarea herri guztira zabaltzea ez du baztertzen udalak.

Erregai fosilen kontsumoa murrizteko planaren barruan Iturmendiko berokuntza sistemaren lanek Europatik % 50eko dirulaguntza jasoko dute, eta beste % 30 Nafarroako Gobernutik.

ONGI ETORRI AMAYA OGITEGIRA

## toki z aldatzen gara

Mamín indarberritzeko unea iritsi da. 55 urte betiko ogitegian pasa eta gero, berrikuntza integrala egin dugu. XXI. mendeko makinaria eta instalazioak jarri ditugu, OGI KALITATEA hobetuz, eta antzinako ogi zapoak lortuz.

Eskerrik asko!

Amaya

OGITEGIA

1964

Dedarría Polígono Fab. 6 / 31800 ALPESU / Nafarroa  
949 562 205 / 673 821 346



Eider Aldaia, Arantxa Erasun eta Emma Martinez.

URDIAIN / ITURMENDI / OLATZAGUTIA

Urtero ospatzen dira Ikas Komunitate diren ikastetxeei buruzko nazioarteko jardunaldiak eta aurten Iruñeak hartuko ditu. Hilaren 16koa zortzigarren edizioa izanen da. Ikas Komunitate ikastetxeen emaitzak, "hezkontzan eta gizartean eraldaketa ematen dela" ikusteko aukera emanen dute jardunaldiak. "Aldatu diren errealitateak ikusten dituzu jardunaldian. Hainbat esperientzia partekatzen dira. Eta, benetan, adierazten dizutenak posible dela. Izan ere, Ikas Komunitatea hori da: partekatzea eta guztion artean hobetzea".

Emma Martinezen, Olatzagutiko herri eskolako zuzendariaren azalpenak dira horiek. Bera, Eider Aldaiarekin (Iturmendikoa) eta Arantxa Erasunekin (Urdiaingo) jardunaldien antolaketan aritu da.

Nafarroan bederatzi ikastetxe dira Ikas Komunitate eta haien herena sakandarra da. Bederatzi artean antolatu dituzte jardunaldiak. "Talde motor bat dago, baina handik lanak bideratzen dira, elkarbanatuz. Egia esan, gogotsu eta ilusioarekin egiten den lan bat da" esan digute hirurek.

Martinezek esan duenez, Ikas Komunitate proiektuak "ilusioa eta elkarlana kutsatzen ditu". Izan ere, Olatzagutian bidea egiten lau urte daramatzate eta hiruna gainontzeko bi ikastetxeek. "Ilusio horretan Olatzagutiak kutsatu gintuen" esan

# Ikasleek aurrera egiteko, elkartu

Ikas Komunitateko kide diren ikastetxeendako, familiendako edo gaietan interesa duen edozeindako doako nazioarteko jardunaldiak antolatu dituzte. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Sario eraikinean izanen dira azaroaren 16an

dute Aldaiak eta Eransunek. Argitu digutenez, "Ikas Komunitateak Katalunian erreferentziatzeko ikastetxeak bihurtu dira. Eskola maila oneko ikastetxeen gaineko emaitzak izan dituzte. Hori lehen eskutik ezagutzea oso interesgarria da". Bestetik, "eskolako familiek ere ikus dezaten ez gabela honetan sartu garen hiru ero, beste ikastetxe batzuk horretan daudela eta emaitzak badirela".

## Ikasketa Komunitatea

Ikastetxe bat Ikas Komunitate bihurtzeko Nafarroako Gober-

**KLAUSTROAREN, FAMILIEN ETA UDALAREN BAIIEZKOA BEHAR DA IKAS KOMUNITATEA IZATEKO**

nuaren Proeducar-Hezigarri programan sartu behar du. Horretarako, ikastetxeak bere klaustroari, familiei eta udalari galdetu behar die Ikas Komunitate izan nahi duen. Arrakasta izateko guztien parte hartzea behar da, bai tertulietan, talde elkar-eragileetan, bai dena delakoan. Komunitatearen oniritziarekin baiezkoa ematen da eta Hezkuntza Departamentuak eskaintzen duen ProEducari proiektuan parte hartzen da.

Hala, hilabete behin, Nafarroako ikastetxe guztiak elkartzen dira astearte goiz batez Ikas Komunitateaz hizketatzeko. Arlo filosofikoaz aparte, gauza zehatzak ere jorratzen dituzte bilera horietan. Aurtengo bileretako puntu bat, esaterako, ebaluazioa da: "nola ebaluatu hau guztia oinarri horiek babesteko eta ikusteko ikasleek akademikoki

aurrera egiten dutela, neurri edo ekintza horiek hartuta gehiago egiten dutela".

## Jardunaldiaz

Heziketa bereziki ikasleen inklusioan adituan den Silvia Molinaren hitzaldiarekin zabalduko da jardunaldia. Bazkaldu ondoren hainbat tailer egonen dira. Ikas Komunitateen arrakasta ekintzen inguruko zazpi tailer izanen dira arratsaldean. Ikastetxeek euren esperientzien berri emanen dute: elkarbizitza, familien trebakuntza... Azken gai horri

**"ERALDAKETA EMATEN DELA IKUSTEKO AUKERA EMANEN DU JARDUNALDIAK"**

buruzko argibideak emanen ditu Martinezek. "Emaitzak lortzen direla ikusten laguntzen dute tailerrek. Joaten den jendea iaioa da, urteak daramatza. Zientzia oinarria duen proiektua da".

Jardunaldietan errealitate desberdinak ikusteko aukera dago. Haien posible egiten dutenekin zuzeneko harremana hasi eta mantentzeko aukera ematen die parte-hartzaileei.

## Aurretik hizketaldiak

Iruñeko San Francisco eskolan 15ean izanen dira, 19:30etik 21:00etara. Helburua da "hobetzeko, ikasteko eta partekatze gogoia duten pertsonak elkartzea, pedagogi testuen aukeraketa hoberenaren inguruko hausnarketak elkar trukatzeko". Eransunek azaldu duenez, edozeinek eman dezake izena. Hori bai, haietara joaten direnak dagokion liburua irakurri eta hizketaldian "konpartitzeko eta besteena entzuteko prestatu beharko dute".

Hizketaldietarako oinarria sei liburuk emanen dute. Baita elkartruke intelektualeko beste bat ere. Seietatik bakarra izanen da euskaraz Paulo Freireren ekarpenak (1999, Eusko Ikaskuntza) liburua oinarri duena. Pedagogo brasildarra irakurri eta pedagogia izanen dute hizketa gaia. Moderatzailea Aldaia izanen da.

Gaztelaniaz pedagogiaz ari zeko Lev Vygotskiren *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores* (2012, Planeta) liburua irakurri beharko da aurretik. Pedagogi eta psikologia uztartzen dira Jerome Brunerren *La educación puerta de la cultura liburuan* (2013, Antonio Machado). Hizketaldi intelektualean oinarrian Eric Kandelen *En busca de la memoria* (207, Katz) liburuaren 14. kapituluak izanen da (*La experiencia modifica la sinapsis*). Hizketaldiaren moderatzailea Martinez izanen da. Ildo bereko hizketaldia izanen dute Lisa Randallen *Llamando a las puertas del cielo. Cómo la física y el pensamiento científico iluminan el universo y el mundo moderno* (2013, Acantilado) liburuaren 6. zatiaz (*Pensar globalmente y actuar localmente*) hizketatuko direnak. Literatur hizketaldiaren ardatza *La epopeya de Gilgamesh* (2015, Penguin clásicos) izanen da.



Ekimenaren bultzatzaileak aurkezpenan. ERRIGORA

## Eskaintza berriarekin, Errigora garaia iritsi da

Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak eskatu daitezke azaroaren 20ra arte

### SAKANA

Errigora ekimenak bere baitan euskara, elikadura burujabetza, Nafarroa hegoaldea eta auzolana biltzen ditu. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den eremuan eragin nahi du, hangoak diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz. *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpainarekin Errigorako kideek Erriberako produktuez osatutako kutxak saltzen dituzte. Kutxa bakarrarekin hasi baziren ere, azken urteetan bi izan dira. Baina aurten eskaintza berri eta hiru saski izanen dira aukeran.

Ekimenaren sustatzaileek kutxak eskuratzeko hiru arrazoi eman dituzte. Aurrena, dakartzaten produktuez gozatzea. Bigarrena, bertako ekoizpena sustatzea. Eta, atzena, Nafarroako hegoaldeko euskalgintza laguntzea. Izan ere, Errigora kutxa bakoitzaren balioaren %25 Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko euskalgintzari emanen baitzaio, hau da, ikastolei, AEKri eta Sorzteni. 2013az geroztik egiten den kanpainak milioi bat euro bideratu ditu Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskarari hauspoa ematen dioten proiektuei.

*Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina aurrea eraman ahal izateko auzolan ikaragarria egiten da. Batzuk herriz herri kanpainaren berri ematen dute. Besteak, berriz, saskiak osatzen eta batetik bestera kutxak eramaten aritzen dira.

### Hiru kutxa aukeran

Errigorako kutxak kolorearen arabera bereizten dira. Beltza, betikoa, 50 eurotan salgai dago eta honako edukiak ditu: orburuak, zainzuriak, pikillo piperrak, ardoa, oliba-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, zainzuri-krema, teilak, melokotia almibarrean, kardua, tomate frijitu eta piper txorizero haragia. Kutxa berdea, ekologikoa, 60 eurotan eskuratu daiteke eta barruan ditu: orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa, olio-olio birjina estra, potxak, mahats-zukua, arroza, pasta, barazki-menestra eta ozpina. Azkenik, kutxa txuria dago, berezia, 70 euro balio duena eta han: orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, ardoa (ondua), patxarana, xanpain extra brut, polboroiak, patxaran mantekatuak, txokolatzeko arrokak eta pikillo piper marmelada aurkituko ditugu.

### Zuberoako ikastolak

Ipar Euskal Herrian euskara ez da hizkuntza ofiziala eta ikastolek nola edo hala aurrera egin behar dute. Zuberoan bi ikastola daude, Alozen eta Sohütan. Euren proiektuak aurrera eramateko eguberriko zareak saltzen dituzte, Zuberoako produktuz beteta daudenak. Bi zare dira 40 edo 52 eurotan saltzen direnak. Haiek eskatzeko epea gaur hasi eta abenduaren 1ean despeditukoda. Ekimen horretan interesa dutenek [www.ikaskoli.eus](http://www.ikaskoli.eus) web orrian sartu eta handik egin dezakete eskaera.

## Genero indarkeriaren kontrako dirulaguntzak

13.968,3 euro izan dira guztira ibarreko udalek Estatutik jaso dutena

### SAKANA

Genero Indarkeriaren kontrako Estatu Itunetik Sakanako udalek 13.968,3 euro jaso dituzte, Nafarroan banatu denaren % 3,28 (biztanleriaren % 3,11 gara). Diru-laguntza hori udalek aipatu itunean jasotako neurriak garatzeko baliatu behar dute. Sakanako Mankomunitateko eta Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuek elkarlanean segitzen dute eta jasotako diru horrekin egitasmo berriak gauzatzea dute buruan. Asmoa gauzatzeko 2020ko garagarriera arte dute.

Joan den urtean iturri beretik ibarreko udalek diru kopuru bera jaso zuten eta horrekin bi Berdintasun Zerbitzuek Jarain proiektua finantzatu dute. Hau da, maiatzean egindako prestakuntza eta lan saioak, herriarriko festak direla eta sexu indarkeriaren kontra egindako kanpaina eta jarain aplikazioa eta web gunea.

### Udalek jasotakoa

Estatu itunetik udal bakoitzak jasotako diru kopurua.

**Arakil** 859,46  
**Irurtzun** 1.081,94  
**Irañeta** 720,32  
**Uharte Arakil** 838,04  
**Arruazu** 707,18  
**Lakuntza** 916,16  
**Arbizu** 890,42  
**Ergoiena** 760,82  
**Etxarri Aranzatz** 1.132,52  
**Bakaiku** 751,10  
**Iturmendi** 760,64  
**Urdiain** 809,78  
**Altsasu** 2.024,42  
**Olatzagutia** 962,24  
**Ziordia** 753,26  
**Guztira** 13.968,30



UTZITAKOIA

## Klinika digitalizatzeko

Sakana Group enpresak bosgarren urtez diru ekarpena egin dio Josefina Arregi klinika psikogieratrikoari. Horrela, Lakuntzako enpresaren laguntzak klinikaren martxa segitzean lagundu du. Aurtengo dirulaguntza Josefina Arregi klinika aro digitalera egokitzeko balioko du, haren eraldaketa digitala ekarriko baitu.

**BATZEN GAITUENA**  
 GUAIXE 25 URTEURREN  
 GALA

azaroak 15 19:00  
 iortia kultur gunean  
 altsasu

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 1

**ETXARRI ARANATZ** Oroigainera ibilaldia eginen du Larrañeta mendi elkarteak.  
09:00etan, plazan.

**ALTSASU** Gazte agenda. Gau beltza: merienda eta beldurrezko filmaren emanaldia.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan.

**ETXARRI ARANATZ** Nazioarteko abesbatza. Indonesiako Manado herriko Gema Sangkakala abesbatzaren kontzertua.  
19:00etan, Jasokunde elizan.

**IRURTZUN** Gazte eguna. *La Iluita en la mochila* dokumentalaren proiektzioa. Ondoren, afari musikatua Enara Urrarekin eta Andrea Cuevasekin.  
IAGAK antolatuta. 19:30ean, Larrazpin.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske.  
20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** *Vivir dos veces* gaurkotasunezko filma.  
22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 2

**IRURTZUN** Gazte eguna. Pintxo potea, bazkaria eta bingo musikatua. IAGAK antolatuta.  
12:00etatik aurrera, Barazki gunean.

**ALTSASU** Txikitasunetik Egia Erein musika jaialdia.  
15:00etatik aurrera, Burunda frontoian eta lortia zabalgunean.

**LAKUNTZA** 'Noiz arte?' kafe tertulia literarioa Pakita Anduezarekin.  
18:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Erronka.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan.

**IRURTZUN** Gazte eguna. Kejapunkera elektrotzaranga eta afaria. IAGAK antolatuta.  
19:00etatik aurrera, Barazki gunean.

**ETXARRI ARANATZ** Etxarri Aranazko Abesbatzaren Gure

**altorra** kontzertua.  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**IRURTZUN** Gazte eguna. Kontzertuak. IAGAK antolatuta.  
23:00etan, frontoian.

## IGANDEA 3

**ALTSASU** Postaseko erret bidea 56 km-tako ibilbidea eginen du Barranka BTT taldeak.  
08:30ean, Zumalakarregi plazan.

**IRURTZUN** Ezkabako kartzela izandako gotorlekura bisita gidatua Koldo Plarekin. 08:45ean, autobus geltokitik Berriozarrera joateko. 09:30ean, autobus geltokitik Ezkabara joateko.  
10:00etan, bisita.

**UHARTE ARAKIL** Olerki saioa: Gregorio Torres, Tomas Yerro eta Blanka Arrizabalaga.  
18:00etan, jubilatuen elkarte.

**IRURTZUN** Folk ametsetan zikloa: Mikel Markezen *Biribilean* emanaldia.  
19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** *Vivir dos veces* gaurkotasunezko filma.  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Lazzaro feliz* zineforum filmaren emanaldia.  
19:40ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 4

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.  
12:00etan, plazan.



**OLAZTI** Guaixe 25. urteurrena. Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa ibiltaria.

Urriaren 28tik azaroaren 8ra arte. Astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:00etara, liburutegian.



**ALTSASU** Altsasuko Arte Azoka.

Azaroaren 2ra arte. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.



ORTIA KULTUR GUNEA

**ALTSASU** Santiago Sierra artistaren *Preso politikoak Espainia garaikidean* erakusketa.

Azaroaren 5etik 30era. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.

## ZORION AGURRAK



**Ibai Galartza**  
Familia guztiaren partez zorionak zure 10. urtebetetzean



info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**  
Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

**ALTSASU Bakea eta bizikidetzaz lantzen duten liburutegiak programa.** Haurrendako tailerra: **Giza eskubideak. Munduari begirada bat** (gaztelaniaz). 10 eta 14 urte bitarteko haurrei eta gazteei bideratuta. 18:00etan, liburutegian.

**ETXARRI ARANATZ EH Bilduren ekitaldia Bel Pozuetarekin eta Arnaldo Otegiarekin.** 19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Nola lagundu seme-alabei lagunartean euskara erabil dezaten?** hitzaldia. Hizlaria eta dinamizatzailea: **Iñaki Eizmendi Arsuaga.** Iñigo Aritzaz ikastola. 19:00etan, Iñigo Aritzaz ikastolan.

## ASTEARTEA 5

**ALTSASU Suizidioaz hitz egin dezagun hitzaldia.** Hizlariak: **Gabriel Gonzalez kazetaria, Elena Aisa Besarkada elkarteko kidea eta Alfonso Echavarri Itxaropenaren telefonoaren kidea.** 18:30etik 20:30era, Iortia kultur gunean.

**ALTSASU Musika eta dantza eskolaren kontzertua.** 19:00etan, Iortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 6

**ALTSASU Kafe konpondu.** 17:30etik 19:30era, Gure Etxea eraikinean.

## OSTEGUNA 7

**ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa.** 19:30ean, plazan.

**ARBIZU KoopFabrika.** Sakanan ekintzailatza sozial eta kooperatiboa sustatzeko programa. 16:00etatik 20:00etara, Utzaganen.

**ETXARRI ARANATZ Irakurle taldea: Amelie Nothomb idazlearen Durduzaz eta dardaraz liburua.** 19:00etan, liburutegian.

**ALTSASU Varados filma.** 19:00etan, Iortia kultur gunean.



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### LEHIAKETAK

**Instagram BOTABA Euskal Esamoldeen Erronkaren 3.edizioa:** Gazteentzako lehiaketa aurtur berritasunekin eta egundoko sariarekin dator. "Beroketa-fasea" urrian hasiko da nola parte hartu ikasteko. Erronka Azaroaren 4tik 25era izanen da. Labayru Fundazioak antolatuta.

**Egile berrientzako Iruñeko Udalaren XXIX. Euskarazko Literatur lehiaketa:** parte hartu ahalko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenek. Poesia, Narrazioa eta Bertso-papera modalitateak. Lan bana modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago [www.iruñakulturada.eus](http://www.iruñakulturada.eus) helbidean.

### OHARRAK

**Etxarriko irakurle taldea:** azaroaren 7an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburu-

tegiak elkartuko dira eta Amelie Nothomb-en "Durduzaz eta dardaraz" liburuz arituko dira. Gonbidatuta zaude.

**Nafarroa Oinez 2019ri laguntza eman nahi izanez gero egin zure ekarpena ondorengo kontu korronteetan:** Laboral Kutxa ES39 3035 0102 3810 2005 4552 / Rural Kutxa ES58 3008 0003 0539 0183 6324 / Caixabank ES52 2100 3695 1322 1015 8880. Errenta aitortpenarako zure ekarpenaren agiria bidaliko dizute etxera.

**Gazte bazkarirako izen ematea:** Irurtzun-Arakilgo Gazte Asanbladak Gazte eguna antolatu du azaroaren 2rako. Egun horretako bazkarira joan nahi duenak Pikuxarren eman behar du izena.

**Tuterako ikastolarekin elkartasun afaria Bakai-kun:** Azaroaren 9an elkartean, 15 euroren truke. Elkartean eta estankoa dauden zerrendetan izena eman behar da.

**AHT-ko lanetara mendi martxa:** Mugitu! Mugimenduak azaroaren 23 eta 24ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi martxa bat antolatu du. Helburua tarte horretako AHTaren proiektua ezagutzea eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estutzea eta martxak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltzea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

**Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzaxearen eraikina zaharberritzeko proiektuan** lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote

**Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformakoak asteartero,** 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatu egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzen elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketazko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AEMren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

**Crowdfunding Kanpaina:** Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arba-zuarraren erronkan parte hartzerako gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabarraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa "Bideak" dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina-web-gunean>.

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

### Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

### IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

### ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta [guaixe.eus](http://guaixe.eus)-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.



OROIGARRIA  
**Gerardo Larrañaga Ondarra**  
I. urteurrena

Datorren igandean, azaroaren 3an, 12:30ean Bakaikuko San Juan Bautista elizan bere omenez meza eginen da.

**Larrañaga Flores familia**  
Bakaiku

## JAIOTZAK

- **Bera Martil Etxeberria,** urriaren 24an Irurtzunen

## HERIOTZAK

- **Julian Senar Senar,** urriaren 23an Lizarragan
- **Margarita Lanz Andueza,** urriaren 25ean Lakuntzan
- **Rosario Prim Salinas,** urriaren 28an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



HEMEN, ZURE ONDOAN AGUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6 | ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 - [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# Joseba Ezkurdiak pilota biziagoak nahi zituen

**PILOTA** Egungo txapelkunari ez zitzaizkion material aukeraketan aurkeztutako pilotak gustatu. Biharko finalerdirako gogotsu dagoela aipatu zuen Joseba Ezkurdiak eta Jakaren kontrako partida "oso zaila" izango dela

Lau T'erdiko Txapelketako finalerdira jokatu dira asteburuan. Joseba Ezkurdiak Erik Jaka izango du aurkari larunbatean Labriten jokatu den partidaren (17:45, ETB1), eta beste finalerdia Altuna III.ak eta Lasok jokatu dute igandean, Bizkaia pilotalekuan (17:00, ETB1). Ikusmina handia da eta final handirako nor sailkatuko den, apustuk pil-pilean daude.

Joseba Ezkurdiaren eta Erik Jakaren arteko norgehiagokak klasiko handia bilakatzen ari dira. Aurreko urtean ere Lau T'erdian elkarren kontra aritu ziren, eta Buruz Burukoan baita. Ezkurdiak irabazi zituen partida horiek, baina ederki izerdituta. Izan ere, Erik Jakak behetik gora egin du nabarmen eta bolada onean dago. Presio handiko partidak hobeto jokatzeko dituen orain, defentsan hobetu du eta erasoan puntako pilotaria da. Gauzak oso zail jarriko dizkio Ezkurdiari. Nolanahi ere, egungo txapelketa, Joseba Ezkurdiak, da faboritua, Labriteko zale gehienak alde izango ditu arbizuarrak eta partida oso gogorra espero da.

## Jakak Ezkurdiaren kexua ulertu zuen

Ezkurdiari material aukeraketan aurkeztutako pilotak ez zitzaiz-



Erik Jakak eta Joseba Ezkurdiak asteazkenean aukeratu zuten materiala. ASPE

kion batere gustatu. "Pilota biziagoak eta indartsuagoak, txispa gehiago dutenak nahi nituen. Mugitzeko zailak diren horiek, azkarragoak; graziarik gabeko materiala da" adierazi zuen bukaeran. Jaka konforme geratu zen materialarekin eta bereziki Ezkurdiak aukeratu zituen bi pilotak gustatu zitzaizkiola aitortu zuen, baina Ezkurdiaren kexua ulertu zuen Lizartzakoak. "Probatu ditudanean pentsatu dut bere jokatzeko modua eta ezaugarriak kontuan hartuta, ez zitzaizkiola gustatuko. Pilota

indartsuagoak gustuko ditu, abiadura handiagokoak" azaldu zuen Jakak.

**Ezkurdiarendako profesionalki pausu erraldoia eman du Jakak** Txapelkunak onartu zuen partida "oso zaila" espero duela. "Profesionalki pausu erraldoia eman du Erikek eta irabazi nahi badiot gauzak oso ongi egin beharko ditut. Urteak daramatza maila bikaina ematen eta eguna alde duenean asko arriskatzen du; bera eustea zaila izaten da. Sanferminetako Lau T'erdian elka-

rren kontra aritu ginen eta bera irabaztea kosta egin zitzaidan" aipatu zuen arbizuarrak. Ezkurdiak gaineratu zuen ongi sentitzen dela, "ilusio handiarekin eta oso gogotsu". "Ez dut nire burua estutzen; ez dut planteatzen ere finalera iristen ez banaiz huts egin dudala. Une honetan 4 pilotari gaude txapelketan eta gutako edozeinek irabazi dezake txapela" nabarmendu zuen.

## Jaka Ezkurdiak sufriarazten saiatuko da

Erik Jakak aitortu zuen larunbatean bere bizitza profesionalerako "partidari garrantzisuena" jokatu duela. "Orain arte jokatu ditudan txapelketetan final-laurdenetan erori naiz. Urte ona izaten ari da hau, aurrekoarekin batera, eta egindako esfortzuen oparia jasotzen ari naiz" aipatu zuen. Ezkurdiak jo zuen faboritua. "Joseba pilotari osoa da. Sekulako lana eginda eta bere esfortzuekin iritsi da gorenera, eta iaz lortutako bi txapelek konfiantza eman diote. Pilotari izugarriko abiadura ematen dio eta partidei erritmo bizia ematen die. Dena den, Lasoren kontra sufritu egin zuen, eta hori izango da larunbateko nire lana, txapelketa sufriaraztea" nabarmendu zuen. Faboritaren presioa Josebak duela gaineratu zuen. "Josebarengan eroriko da presioa eta nik ongi pasatzeko partida bat bezala hartu behar dut larunbatekoa" adierazi zuen.

**Finalerako sarrerak gaur, ostiralean jarriko dira salgai** Azaroaren 17an Nafarroa Arenan jokatu den Lau T'erdiko finalerako sarrerak gaur, ostirala jarriko dira salgai, entradasfronton.com web gunean, goizeko 10:00etatik aurrera.

## FUTBOL PREFERENTEA

6. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Aibares - Lagun Artea	2-0
Ilunberri - Etxarri Aranatz	3-1

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Beti Casedano	12
4 Lakuntzako Lagun Artea	11
13 Etxarri Aranatz	6

HURRENGO JARDUNALDIA	
IGANDEAN	
15:45 Lagun Artea - Ardoi (Zelai Berri)	
16:00 Etxarri - Ondalan (San Donato)	

## Jardunaldi kaxkarra gure taldeendako

Oibarren, Aibares ongi aritu zen lehen zatian eta bi gol sartu zituen. Bigarren zatian Lagun Artea saiati zen, baina Aibaresek atea oso ongi defendatu zuen eta 3 puntuak Oibarren geratu ziren.

Ilunberriren eta Etxarriren arteko partida oso lehiatua izan zen. Ilunberri bi gol sartu zituen, baina Arratibelen golarekin 2 eta 1 hurbildu zen Etxarri. Aukera gehiago izan zituzten etxarriarrek, baina ez zituzten aprobetxatu eta, azkenean, 3 eta 1 galdu zuten.

## FUTBOL ERREGIONALA

6. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Berriozar	1-2

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA	
1 Amaya	14
10 Altsasu	4

HURRENGO JARDUNALDIA	
IGANDEAN	
13:00 Gazte Berriak - Altsasu (Antsoain)	

## Altsasuk ezin izan zion buelta eman

Altsasuk dominatu zuen eta defentsara mugatu zen Berriozar, baina Altsasuk galdutako baloi bati esker aurreratu zen Berriozar. Guisadok bana berdindu zuen, baina Altsasuren beste akats bati esker garaipenaren gola sartu zuen Berriozarrek.

## Burgosen barna gustura

**BTT** Sakanako Mankomunitateak, Barranka Txirrindulari Taldearen laguntzarekin, BTT edo mendi bizikleta irteera antolatuta zuen igandean. Burgosen barna 42 km-ko buelta zoragarria egin zuten. "El bueno, el feo y el malo" film ezaguneko sekuentziak grabatu ziren Sad Hill kanposantua abiapuntu, Covarrubias gainditu eta Lerman bukatu zuten buelta.



BARRANKA TXIRRINDULARITZA TALDEA

## EMAKUMEEN ERREG.

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Mulier	1-0

SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Castejon	21
9 Altsasu	12

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
18:30 Gazte Berriak - Altsasu (Antsoain)	

## Mulierren kontrako garaipena

Altsasuko neskek garaipen garrantzitsua lortu zuten Mulierren kontra, Eider Vicentek sartutako golari esker.



## Gazteen Lau T'erdiko Txapelketa Sakanan

**PILOTA** Etxarreen, Uharte Arakilen eta Lekunberrin jokatzeko ari dira Guillermo Mazo Memorialeko partidak

Abian da Nafarroako Gazte Mailako Lau T'erdiko Txapelketa, Guillermo Mazo Memorialeko. Guztira Nafarroako 12 klubetako 30 pilotari lehiatuko dira. Asteartean, Etxarreen, Murillok 18 eta 4 irabazi zion Lasori eta O. Lizarragak egin zuen aurrera A. Lizarragaren kontra (0 eta 18).

## Hurrengo partidak

**Uharte Arakil** (Azaroaren 5ean, asteartean, 18:00etan)

- Etxague (Ardoi) – Murillo (Esteribar)
- Alastuei (Oberena) – O. Lizarraga (San Sebastian)
- Azpiroz (Iruizun) – Armendariz (Oberena)
- Gorrotxategi (Ultzama) – Perez de Ziriza (Barañain)

**Lekunberri** (Azaroaren 6an, asteazkenean, 18:00etan)

- Prim (Paz Ziganda) / Kañameres (Barañain)
- Maiza (Zugarralde) / Imaz (Iruizun)
- Lazkoz (Esteribar) / Ibarra (Paz Ziganda)
- Etxebere (Txaruta) / Murillo (Paz Ziganda)

## ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak Valdepeñas hartuko du gaur

Aste bateko geldialdiaren ondoren bueltan da Lehen Mailako Areto Futboleko liga. 7. jardunaldia da jokoan dagoena, eta sailkapenean 4.a den Osasuna Magnak (12 puntu) sailkapenean 7.a den Viña Albali Valdepeñas (9 puntu) hartuko du gaur, ostiralean, 20:30ean, Anaitasunan. Partida oso konplikatu esperatu da Imanol Arregik.

# Sakanako lasterketan Etxeberria eta Gil nagusi

**ATLETISMOA** Eguraldi paregabearekin Etxarrin igandean jokatu zen XIX. Sakanako Herri Lasterketa-Lasa Kirolak Saria. Javi Moreno altsasuarra hirugarrena izan zen eta Izaskun Beunza olaztiarra bigarrena. Errefuxiatuen aldeko martxan 22 partaide izan ziren

Eguraldi bikainarekin jokatu zen Sakanako Mankomunitateak hainbat entitate eta babeslerekin antolatutako XIX. Sakanako Herri Lasterketa-La Burundesa Sari Nagusia, Etxarri Aranatzan. Bezperan jokatzekoa zen, baina Altsasuko auzipetuen aldeko manifestazioarengatik igandera atzeratu zen. Goizeko 10:00etatik aurrera hasi zen mugimendua: korrikalariak lasterketan izena eman eta dortsalak jasotzen zituzten bitartean, Maksim Magoaren ikuskizuna hasi zen plazan.

Lehenik eta behin kategoriatxikikoen probak jokatu ziren; 60 neska-mutikok eman zuten izena. Eta gero, 12:00etan, proba nagusia hasi zen: Etxarri Aranzako kaleetan prestatutako zirkuituari 3 itzuli eman behar izan zizkieten korrikalariak, guztira 6,9 km egiteko. Irteera hartu zuten 47 korrikalarien artean Beste Iruña taldeko Antonio Etxeberria korrikalari beterranoa gailendu zen (22:07). Etxeberriak adierazi zuenez, “soilik lohia falta izan zaio ibilbideari kross hutsa izateko. Igoerak, bihurtuneak, erritmo aldaketak... denetarik zegoen. Oso lasterketa polita da”. Garaipena bere taldekide izandako eta aurrez zendutako Jose Mari Mercerori eskaini zion. Bigarrena Pedro Ruiz iruindarra izan zen, 20 segundora, eta hirugarrena Javi Moreno altsasuarra (23:42).

Emakumezkoetan, Sakanako Herri Lasterketa hirugarrenez gailendu zen Aitana Gil. Gil Cabanillaskoa da, Ribera Atletico taldekoa, baina Arbizon bizi da. Eta hirugarrenez ere, lehia oso estua izan zuen Gilek Izaskun Beunza olaztiarrarekin. “Lehen itzulian ihes egitea lortu dut, baina bigarrenetan harrapatu naute eta hirugarrenean azken kilometrora arte Izaskun Beunzak gertutik jarraitu nau. Estutu behar izan dut” aitortu zuen



Kadete mailakoek proba nagusian jokatu zuten. NEREA MAZKIARAN

## ANTONIO ETXEBERRIAK JOXEMARI MERCERORI ESKAINI ZION GARAIPENA

Gilek (26:42). Izaskun Beunza olaztiarra 10 segundora sartu zen (26:52) eta Ana Ollo iruindarra hirugarrena izan zen (27:03).

Kadeteek ibilbideari bi itzuli eman zizkieten. Mutiletan Manex Zufiaurre etxarriarra (18:45) gailendu zitzaion Ekhi Barandiaran bakaikuarrari (21:36), eta emakumezkoetan Leire Ezkerra izan zen lehena (21:43). Jubenilek proba nagusiko distantzia osatu zuten eta Haritz Goikoetxea altsasuarra (31:24) eta Eider Jaka etxarriarra (38:59) izan ziren azkarrenak.

## Errefuxiatuen Martxan 22 pertsona

Proba nagusia hasi baino 15 minutu lehenago “Ongi etorri errefuxiatuak” lelopean oinezko martxa abiatu zen. 22 pertsonak ekin zioten oinezko martxari, eta lasterketak zuten ibilbideari

itzuli bat eman zioten, oinez. Izan ere, Sakanako Herri Lasterketa kirol proba bat baino gehiago da; alde soziala eta kulturala du, hortik “Ongi etorri errefuxiatuak” leloa. Horrela, goiz guztian barna, lasterketak gauzatzen ziren bitartean, HELPNA eta Sakana Harrera Harana elkarteek Greziako errefuxiatu eremuei buruzko informazioa zabaltzen zuten, argazki erakusketak egon zen, Zurrumurruen kontrako espazioa zegoen eta

txikiendako jokoak eta henna tailerra antolatzen zituzten. Lasterketa bukaerako auzatea ere berezia izan zen. Ohiko jakiez gain, marokiak emakume talde batek prestatutako tea eta berdukin prestatutako haragi gisatua dastatu ahal izan zituzten korrikalariak.

Sari ematean bertako produktuen loteak jaso zituzten irabazleek, eta babesleek utzitako zenbait sari zozketatu zituzten antolakuntzak.



Bukaeran sari ematea izan zen plazan. Sarituek produktu loteak jaso zituzten.

## Sakandarrak

### Gizonak

1. Antonio Etxeberria (Iruña)	22:07
3. Jabi Moreno (Alts)	23:42
4. Raul Audikana (Olaz)	23:50
6. Sergio Garcia Eulate (Alts)	23:55
7. Iraitz Senar (Lak)	23:59
8. Felix Benjumea (Alts)	24:20
9. Mikel Astiz (Ihab)	24:25
10. Iban Sobredo (Alts)	24:29
13. Asier Estarriaga (Etx)	25:34
14. Javier Borrega (Alts)	26:00
15. Antton Zelaia (Urd)	26:01
16. Joxeja Maiza (Etx)	26:24
17. Juan Luis Maiza (Etx)	26:25
18. Gaizka D. de Garaio (Bak)	26:40
22. Patxi Rubio (Uharte)	27:09
23. Asier Leiza (Arb)	28:59
24. Esteban S. Roman (Arb)	29:00
25. Luis Flores (Lak)	29:15
28. Juan Pedro Ariz (Bak)	29:50
29. Santi Agirre (Iturm)	29:51
32. Haritz Goikoetxea (Alts)	31:24
33. Aimar Araña (Etx)	31:26
34. Amaur Arratibel (Etx)	31:27
36. Iñigo Orella (Etx)	33:36

### Emakumeak

19. Aitana Gil (Cabanillas)	26:42
20. Izaskun Beunza (Olaz)	26:52
27. Erkuden S. Martin (Etx)	29:46
30. Leire Estarriaga (Etx)	30:05
31. Jessica Camello (Alts)	30:48
38. Eider Jaka (Etx)	38:59



Andres Bengoetxeak eta Joxemiel Larreak ikastaroan izena ematera animatu dituzte sakandarrak.

# "Mendian orientatzeko baliabideak erabiltzen irakatsi nahi dugu"

**MENDIA** Altsasuko Mendigoizaleak taldeak mendian orientatzeko dauden baliabideak erakusteko doaneko ikastaroa eskainiko du azaroan barna, ikastaro teoriko eta praktikoa. Andres Bengoetxeak eta Joxemiel Larreak eman dizkigute azalpenak

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU Altsasuko Mendigoizaleak taldeak atzo egin zuen ikastaroaren aurkezpena, bere egoitzan. Mendian orientatzeko baliabideak erabiltzen irakasteaz gain, betiko mendigoizaletasunaren esentzia berreskuratu nahi dute. **Ingurunean edo mendietan orientatzeko dauden tresna eta baliabideen inguruko ikastaroa antolatuz duzue Altsasuko Mendigoizaleak. Zergatik?**

Beharra ikusi zen. Batetik, badago tresna hauek erabiltzen ez dakien jendea. Eta, bestetik, jende asko mendira doa GPS-arekin, autoan nabigatzaileak jartzen duen bezala. Hau da, robotak balira bezala: "joan 100 metro aurrera, gero eskuinerantz jo, handik 10 metrora bidexka hartu...". Hori ez da guk mendira joateaz ulertzen duguna. Mendira bizi guztian joan den

bezala joan behar da, aparailu baten agindua jarraitu gabe. Iparrorratza, mapak eta GPSa edo telefono mugikorra motxilan eraman behar dira, eta soilik behar denean, zalantza dagoenean, haiek kontsultatu. Tresna hauek ez dira uneoro eskutan eman behar, gaur egun sarritan gertatzen den bezala. GPS-etako tracketan ibilbideak jasotzen dira, eta tracka jarraitzen bazoaz, arrastoa jarraitzen zaude. Eta hori ez da mendian ibiltzeko mendigoizaleek dugun filosofia. **Eta zein da, berez, mendigoizaleen filosofia?**

**"ASKO ROBOTAK BALIRA DOAZ MENDIRA, TRACKAK PAUSUZ PAUSU JARRAITUZ"**

Antzinetik dator gure filosofia: mendira libreki ibiltzera goaz, gozatzeraz. Nahas gaitzke, desorientatu, eta kasu horietan aterako dugu GPS-a. Osagarri bezala. Aparailuak non nagoen adieraziko dit, bide onean nabilen. Eta gero gordeko dut eta aurrera egingo dut. Lasai ibili, argazkiak atera... hori da gure filosofia, ikastaro honetan aldarrikatu nahi duguna: mendira beti joan den moduan joatea. Egun, jende askok Wikiloc-eko track-ak edo ibilbideak jarraitzen ahalik eta azkarren igo nahi du mendira, ibilbidean gozatu gabe. Senderismoa eta trekkinga alde batera utzita. Senderismoa mantsoago joatea da, ibilbideaz gozatzea, eta mendizaleatasunaren osagarria den argazkilaritzaz gozatzea. Mendia ulertzeko beste modu bat dute batzuk, ez da betiko mendigoizalearen perfla.

Pentsa aste honetan zeresana eman duen Nirmal Purja nepaldarrarena. 190 egunetan 14 zortzimilakoak igo ditu, baina kanpamentu nagusietara helikopteroz eraman dute... hau al da benetako mendizalea izatea? Kritika eta polemika asko dago. **Berez, mendira joateko ohituretan aldaketa egon da.**

**J.L.** Mendigoizale betianoek filosofia berberari eusten diogu, baina badago jende asko mendiko GPS-arekin edo telefono mugikorreko GPS-arekin edozein mendira igotzeko kapaza ikusten duela bere burua, oinarritzko ezagupenik gabe. Eta gero, jakina, denetatik ikusten da. Ia ezagutzarik gabe eta gaizki ekipatuta mendira ateratzen den jendea, mendian galdu eta larrialdietara hots egin behar izan duena. Suhiltzaile izan naizen aldetik sarritan tokatu izan zait irteera hauek egitea. Horregatik, orientazioko tresnen erabilera irakatsi nahi dugu, baina baliabide hauek zentzuz erabiltzeko, osagarri moduan. Bizitza guztia daramagu mendian, baina mendigoizaleen filosofiarekin. Tresna hauek ongi daude, baina kontsulta bezala, zalantzaren bat dagoenean erabiltzeko. Ez track edo ibilbide bat, robot batzuk bagina bezala jarraitzeko.

**Finean, ez duzue teknologiaren morroi izan nahi?**

Hori da. Mendizaleatasunaren oinarritzko kontzeptuetatik abiatu nahi dugu, ez dugu elektronikaren mende egon nahi. Ezin da mendira joan GPS-aren laguntza bakararekin. Une batean, GPS-ak pilarik edo bateriarik gabe geratu daitezke, edo beste edozein arazo gertatu. Mendira joateko oinarritzko minimo batzuk jakin behar dira, ezin gara 3G, 4G edo 5G teknologiaren menpe egon, une batzuetan funtzionatu gabe gera daitezkeelako. Eta orientazioan minimo horiek iparrorratza eta mapak behar bezala erabiltzen jakitea da, batetik, eta mendiko betiko gomendioak jarraitzea, bestetik, gure arbasoetatik jasotekoak.

**"TRESNAK KONTSULTATZEKO ERABILI BEHAR DITUGU; EZIN GARA EUREN MENPE EGON"**

**Teknologia horien ezagutza irakatsiko duzue, baina beti lagungarri moduan, dependentziarik sortu gabe.**

Hori da. Zeretik hasiko gara ikastaroan, oinarritzko erremintekin. Iparrorratza eta maparekin ibiltzen irakatsiko diegu izena ematen dutenei, duela 40 urte Pirinioetara joaten ginenean egiten genuen bezala, mendizaleatasunaren esentzia. Eta, ondoren, puntako teknologiaraino helduko gara: GPS-a erabiltzen irakatsiko diegu, track edo ibilbide batekin, Waypoint edo interes puntuekin, Wikiloc, Mapsource, Oruxmaps, Google Earth...

**Noiz hasiko da ikastaroa?**

Asteartean, azaroaren 5ean hasiko gara, 20:00etan, Iparrorratzaren eta maparen erabilpenaren ikastaroa emango dugu Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzan. Hurrengo ostiralean, azaroaren 8an, GPS-a, Waypointak, Trackak eta ibilbideak nola erabiltzen diren aztertuko dugu, 20:00etatik aurrera, gure egoitzan. Azaroaren 12an, 20:00etan, Google Earth, Mapsource, Oruxmaps eta Wikiloc web gune edo aplikazioez ariko gara, eta azaroaren 15ean lehendabiziko praktikak egingo ditugu gure egoitzan, 20:00etan. Azaroaren 16an eta azaroaren 23an mendira joango gara, praktikak egitera, izena eman dutenen artean ordua zehaztu eta gero. Hasierako praktikak San Pedro zelai inguruetan egingo ditugu ziurrenik, toki oso egokia delako, eta luzeagoak diren praktikak egitera Urbasara joko dugu. Bukatzeko, azaroaren 30ean inongo tresna edo baliabiderik gabe mendian nola ibili ikusiko dugu Aquilas artzainarekin; mendizaleatasunaren betiko esentziara joko dugu, hutsera.

**Ikastaro osoa da. Norendako antolatuta dago eta non eman daiteke izena?**

Interesatu guztiek eman ahal dute izena: mendian hasi nahi dutenek; orientaziorako dauden tresnak eta aplikazioak ikasi nahi dituztenek; betiko mendigoizaleek... guztiendako daude zabalik gure ateak. Ikastaroa dohainik da, eta ondoko telefonoetan eman behar da izena: 699 452 188 edo 640 143 497. Ikastaroan parte hartzen dutenek gutxieneko materiala eraman beharko dute: GPS edo Android sistema duen mugikor bat eta iparrorratza.

**Orientatzeko dauden tresnen mundua zabala da. GPS-a, mapak, trackak, waypointak...**

Bai, oso zabala. Iparrorrazak orientazioa markatzen dizu eta GPS-ak duzun posizioa. Ez dira tresna berdinak, baina bai osagarriak. Urbanen, Aralarren eta Andian iparrorrazarekin ez duzu galtzerik. Bailarara aterako zara, aurrerago edo atzerago, baina aterako zara. GPSak posizio zehatza ematen dizu. Nahiz eta telefono mugikorrek GPS-a izan, mendian ibiltzeko komenigarria da mendiko GPS aparailua eramatea, mugikorra koberturarik gabe geratu daitekeelako eta GPS-ak satelite moduko konexioa duelako.

**Wikiloc programan milaka mendi ibilbide daude gordeta.**

Programan erregistratzen den edonork bere ibilbidea egin eta bertara igo ahal du, besteok kontsultatzeko. Eta gainontzekoenak jaitsi, jakina. Baina ibilbide bat zuzenean mugikorren edo GPS-ara jaitsi baino lehen, komenigarria da ongi aztertzea, denetarik ibilbideak baitaude, batzuk ez oso egokiak. Behin GPSra deskargatuta, aparailuak ibilbidea markatuko dizu. Baina ez da autoetan erabiltzen den nabigatzaile bat bezalakoa; nabigatzaileak, bidez okertzen bazara, ibilbidea zuzendu eta kalkulatu dizu berrituko. Trackean ibilbidea bakarria da, zu ibilbidetik ateratzen bazara, bueltatu behar zara. Bestalde, Google Earthen ibilbideen profilak ikusi ahal dira eta informazio ugari. Mundu bat da.

**Zer dira Waypointak?**

Waypointak une horretan zauden kokapen edo puntuaren berri ematen dizu, kokapen zehatza, koordenadekin (latitua eta longitua). Zure gailuan, GPS-an edo ibilbideko track-ean, gorde dezakezu. Esaterako, ibilbidean iturri polita ikusi duzula, orduan toki horren Waypointa egin dezakegu, puntu konkretua zehatza, eta argazkia sar dezakegu, toki horren azalpenak, xehetasunak eta beste.

**Ez da berdin auto bat zure kabuz gidatzea edo nabigatzaile baten**

**"TEKNOLOGIA BERRIEKIN ORIENTATZEKO TRESNA UGARI DAUDE, MUNDU BAT"**

**aginduak jarraituz gidatzea. Mendian antzekoa gertatuko da, ez?**

Hori da. Nahiko genuke GPS-a eta teknologia berriak kontsultarremintak izatea, gida elementuak baino. Finean, mendiaz gozatzeko sarritan mendian galdu egin behar gara. "Aralarrrera igo nahi dut. Nondik igoko naiz? Lakuntzatik? Beheko zubitik sartuko gara, iturri eder horretara iritsiko gara, gero Guardetxera igo, akaso handik Pagomarira...". Galdu bagara GPS-a aterako dugu. Baliabideak zailtasunetik ateratzeko erabiliko ditugu. Eta paraje zoragarriak ikusiko ditugu, toponimia erabili, argazkia atera... mendiaz gozatu dugu, hori da mendizailtasunaren benetako esentzia. **Ikastaroko azken saioan tresna eta baliabiderik gabe mendian orientatzeko baliabide praktikoak irakatsiko dituzue.**

**A.B.** Bai, Urdiaingo Aquilas artzainarekin Urbanen ibiliko gara. Klase praktikoa emango digu. Berak ez ditu gailuak erabiltzen. Orientatzeko, hatza busti, goraka jarri eta esaten du: "hemen jotzen du aireak, hau iparra da" eta horrela orientatzen da. Harrien inklinazioarekin hegoa antzematen du, zuhaitzen goroldioa jarraitzen du... Orientatzeko antzinako betiko teknikak dauzka. Behin esan zigun sima bat eza gutzen zuela eta inork gehiagok ez zuela toki horren berri. Nonbait Gerra Karlistetan karlistak bertan estaltzen ziren. Hara eraman gintuen, posizioa hartu, eta egia da, sima hori ez dago katalogatuta, ez dago inon jasoa. **J.L.** Behera jaitsi nintzen, sokekin. Zulo bertikala da, ederra, nahiko zabala. Hezur pilo bat daude, animalienak, izan ere zulo horretatik asko eroriko ziren. Egun batean Aquilas jaitsi behar dugu bertara...

**Ikastaroan izena ematera animatuko ditugu Guaixeko irakurleak?**

Bai, jakina, animatu daitezela, orientatzeko teknikak eta tresnak ikasiko ditugu, betikoak, tradizionalak, eta puntako teknologikoak. Mendian ongi orientatzeko baliabideak jakitea ez dago batere gaizki.

**"AQUILASEKIN MENDIAN IBILTZEKO BETIKO TEKNIKAK ETA MODUAK EZAGUTUKO DITUGU"**

# 70 rollerskiatzaile Etxarri Aranatzan

**ROLLERSKI** Larunbatean XIII. Uharte Rollerski Saria jokatu zen Etxarri Aranatzan, Euskal Herriko Rollerski Ligarako baliagarria. Proba laburrean Nahia Iturria eta Ibai Aramendia gailendu ziren eta nagusian Henar Etxeberria eta Carlos Lannes

Larunbatean, eta eguzkia lagun, Uharte Ipar Eski Taldeak Etxarri Aranatzan antolatutako XIII. Uharte Rollerski Saria jokatu zen. Guztira 70 rollerskiatzaile aritu ziren, 14 proba laburrean (2,8 km) eta 56 proba nagusian (9,4 km), Euskal Herriko Rollerski Ligarako baliagarria zen proban.

Rollerskia elurra ez dagoenean eskia lantzeko modalitate gisa sortu zen, entrenatzeko, teknika hartzeko eta eskian ikasteko ere bai. Finean, eski itxura duten gurgildun patinete antzekoak erabiltzen dira, rollerskiak, eta haiek jantzita eta bastoiak eskuan, ipar eskiaren antzeko mugimenduak egiten dira. Baina hasieran, entrenamendu hutsa izateko jaio zen modalitate hazi egin da eta bere entitate propioa hartu du. Horren erakusle Euskal Herriko Rollerski Liga, aurten 9 proba dituen, tartean larunbatean Etxarri Aranatzan jokaturakoa. Proba hauek, finean, eskiatzaileen topaketak izaten dira, eski denboraldiari ekin baino lehen jokatzeko direnak.

**Rollerski klasikoa**

Etxarri Aranatzko proba rollerski klasikoan jokatu zen. Hau da, estilo honetan gurgilak ez dira atzeraka mugitzen, soilik aurrera, eta rollerskiak paralelo eramaten dira; horrela, rollerskiatzaileek uneoro eskiatzen egongo balira bezalako mugimenduak egiten dituzte. Beste estiloan, patinatzaile estiloan edo estilo librean, gurgilak ere atzeraka mugitzen dira eta rollerskiak V moduan eramaten dira.

Bi distantzian jokatu zen XIII. Uharte Rollerski Saria eta bi distantziek irteera eta helmuga bera izan zituzten, Etxarri Aranatzko igerilekuetako bidean, errotonda ondoan dagoen Dorraukoetxea. Lehenik eta behin distantzia laburrekoak atera



Rollerskiatzaileak, abiatzeko prest. UHARTE IPAR ESKI TALDEA

**ROLLERSKI LASTERKETAK BEREZIAK ETA POLITAK DIRA, OSO AZKARRAK**

ziren (2,8 km), 14 urtetik beherakoak eta distantzia laburra aukeratu zutenak. Berroetako bideko zuzengunean aurrera egin zuten eta Lizarrustiko bigurutzera iritsi baino lehen buelta hartu eta helmugara jo zuten. 8 emakume eta 8 gizon lehiatu ziren eta gizonetako Ibai Aramendia izan zen azkarrena (11:13), Maren Velazquezen (11:49) eta Urtzi Goñiren (11:56) aurretik. Emakumetako Nahia Iturria gailendu zen (11:09), Naroa Morenoren (11:15) eta Maialen Montoyaren (11:56) aurretik.

**Proba nagusian Etxeberria eta Lannes azkarrenak**

Ondoren proba nagusia jokatu zen. 14 urtetik gorakoek hartu zuten parte bertan, 56 rollerskiatzaile guztira, 17 emakumezko eta 39 gizonetako. Distantzia laburrean bezala, Mass Start

irteera izan zen; hau da, rollerskiatzaile guztiak batera atera ziren. Berroetako bideko zuzengunea gaindituta, Lizarrustiko bigurutzera Lizarragabengorantz jo behar zuten eta herria pasa eta gero, trenbide gaineko zubian buelta hartu eta helmugara iritsi behar ziren, buelta hori bitan eginez (9,4 km). Carlos Lannesek eta Unai Sanzek borroka oso estua izan zuten ibilbide guztian barna eta, azkenean, segundo eskas batengatik Carlos Lannes gailendu zitzaion (23:50) Unai Sanzi (23:51). Josu Erkizia izan zen hirugarrena (23:52). Bernar Garzandia etxarriarra 17.a iritsi zen helmugara (33:08).

Bukaeran, Etxarri Aranatzko plazan egin zen sari ematea, eta auzate ederraz gozatu zuten rollerskiatzaileek. Hurrengo egunean Irrintzi Ski Klubak Ollakarizketatik Beorbururaino antolatutako 6 kilometroko igoeran, rollerski estilo librean parte hartzekoak ziren haietako asko, Etxarriko probarekin batera Nafarroako Rollerski Asteburua antolatu baitzuten. Sari horiek igandean banatu ziren Beorlegin.

# Sakanako txirrindularitzaren urrezko garaiak

Burunda Txirrindularitza Taldeko Gorka Mintegi idazkariarekin eta Sakana Group-Aralar taldeko Edi Cerviño zuzendariarekin bildu gara despeditu berri den denboraldiko balorazioa egitera. Bi klubendako, aurtengo denboraldia oso ona izan da eta hurrengoa prestatzen murgilduta daude buru-belarri

## "Oso kontentu gaude"

GORKA MINGE BURUNDA KLUBEKO IDAZKARIA



### Zer nolako denboraldia izan da aurtengoa?

Urte guztiak bezalakoa. Denboraldia luzea da, momentu onak eta ez hain onak egoten dira, baina oso kontentu gaude; jendea gustura dago eta 48 neska-mutil ditugu. Txirrindularitzan boladak izaten dira. Nire semea hasi zenean txirrindulari gutxi ziren eta behin ez zen junior talderik atera. Egun talde majoa dago. Belaunaldiak dira, edo modak... baina gora joan gara orain eta hor gaude.

**Eskoletan helburuak bestelakoak izaten dira: neska-mutikoak trebatu, ongi pasa dezatela, txirrindularitzari tamaina hartzea... baina kadeteetan eta juniorretan beste balorazioak egiten dira. Zer moduzko denboraldia izan da?**

Oso ona. Kadeteetan kirol emaitzak onak izan dira; lasterketa batzuk irabazi dira, bai banaka eta baita taldeka. Hugo Aznar eta Mikel Uncilla gehiago igo dira podiumera baina taldekide guztiak ongi ibili dira eta taldea osatu dute. Juniorren maila zailagoa izaten da. Bi momentu txar izan genituen; Gipuzkoako Itzulian Unai Aznar oso ongi zihoan, baina erorikoa izan zuen, eta Iruñeko Itzulian Iker Mintegi ongi zebilen baina zulaketa izan zuen... Dena den, denboraldi guztian lehian egon gara eta kontentu.

**Zuen txirrindulariak Nafarroako selekzioarako eta beste selekzio batzuetarako hautatuak izan dira. Horrek errekonozimendua ematen dio klubari, baina akaso, klubaren egunerokoan eragina du eta planifikazioaren bat piztura joan daiteke.**

Selekzioarekin joatea beraiendako sari bat da eta guk ere horrela ikusten dugu, merezi dutelako. Jubeniletan gutxi gara, Unai Aznar eta Iker Mintegi Nafarroako selekzioa deitu dituzte eta beste bat Ga-

liziakora, eta horregatik lasterketa pare batean ezin izan gara aritu. Onak direnak eramaten dituzte, eta trukean prezio bat ordaindu behar da. Nafarroako selekzioarekin Donostiako Klasikoan, Alacanten eta Valladoliden aritu dira gure txirrindulariak eta hori handia da eurendako. Nafarroako selekzioa ehuneneko kopuru oso handian sakandarrez osatuta egon da, bai kadeteetan eta bai jubeniletan. Sakanan maila handia dago.

**Beraz, txirrindularitzaren urrezko gariak ezagutzen ari gara. Hurrengo denboraldia nola dator?**

Oraindik ez dugu aurtengoa bukatu. Azaroaren 22an Burundako urteko asanblada dugu, azaroaren 30ean txirrindulariek, senitartekoez eta juntakoez bazkaria egingo dugu eta aurtengo Burundak, lehenengoz, ziklokros lasterketa bat antolatuko du. Abenduaren 14an izango da, Urdiainen, eta Benigno Mendia zenarentzako omenaldi xumea izango da, Sakanan ziklokrosen hasi zen lehenetarikoa izan zelako. Burundako 2 kadete eta 3 jubenil, ziklokrosen aritzen dira. Gaur, ostirala, lasterketa dute Legazpin.

**Eta hurrengo urterako aurreikuspenak onak dira?**

Bai, talde guztiak osatuko ditugu. Jubeniletatik 3 doaz, kadeteetatik 4 igotzen dira, haurren mailatik kadeteetara ere igoko dira... joan zen urteko egiturak mantentzen ditugu. Ildo honetan, neska-mutikoak txirrindularitzan aritzea animatu nahi nituzke. Lehenengo urtean izena ematen duenari klubak bizikleta uzten dio, bada-kigulako gastu bat dela. Proba dezatela, lasai asko. Askok beldurra diote errepredeari, baina nik urte asko daramatzat klubean eta ez zaigu inoiz ezer arrarorik gertatu. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet babesle eta laguntzaile guztiei, aurrera egiten laguntzen gaituztelako.

**Taldea ateratzeko gurasoek eta juntakoez egiten duzuen ahalegina ere handia da.**

Bai, urte guztian ez gara geratzen, lasterketak, entrenamenduak, juntako lanak... baina gustuko baduzu... Seme-alabak kategoriatik txikitzen ibiltzen direnean "Navarra en fiestas" aritzen gara, kadeteetan Euskal Herri osora zabaltzen da kontua, eta gero Estatu espainolera ateratzea suertatu daiteke, baina gustuko tokian aldarrikatu ez.

## "Urte oso ona izan da, disfrutatu dugu"

EDI CERVIÑO ARALAR TALDEKO ZUZENDARIA



### Zer moduzko denboraldia izan da aurtengoa?

Helburu orokorra txirrindularitzarekin disfrutatzea eta ikastea da, eta lortu dugu. Izen berriarekin aritu gara, Sakana Group, eta ilusioarekin hasi ginen. Denboraldi polita egin nahi genuen eta denboraldi ona egin dugu: lasterketa gehienetan aurrean egon gara eta podium gehienetan egon gara. Disfrutatu dugu eta lan ona egin dugulako pozik gaude. Eskoletan ongi trebatu dira neska-mutikoak eta giroa ona da. Kadeteetan, hasiera batean ez genuen aurreko denboraldikoa bezain talde indartsurik, baina oso denboraldi ona egin dugu, ongi ibili dira taldekideak. Martxel Etxeberriarekin Euskadiko Txapelketa irabazi genuen, eta horretaz gain lasterketa garrantzitsuak lortu ditugu. Hurrengo denboraldirako erreleboa ere badator. Garrantzitsuena neska-mutikoak disfrutatzea da; disfrutatzen badute, azkenean duten guztia ematen dute eta emaitzak etortzen dira. Euren kasa utzi behar zaie, gertutik jarraituz baina behartu gabe. Bestela, jai dago. Talde lan ona egin dute, giro ona egon da eta laguntasun handia.

### Eta juniorretan?

Juniorren urtea zaila da. Batzuk helburu pertsonalak dituzte, afizionatuetara pasatzearena, eta gehiegi estutzen dute euren burua. Eta beste batzuk ez. Horregatik, gertu egon behar duzu, txirrindulariak pixka bat kontrolatu behar dituzu, zentratuak egon daitezten. Nire filosofia txirrindulariak laguntzea da, ongi pasa dezatela eta ahalik eta gehien ikas dezatela, baina positiboan. Lagunak izaten ikas dezatela, errespetua izaten. Denboraldia ona izan da. Gipuzkoako Itzulia irabazi genuen Igor Arrietarekin, sekulako talde lan ikusgarria egin eta gero. Iruñeko Itzulia denboraldiko beste helburua zen. Espainiako selekzioak Igor Arrieta deitu zuen Europako Txapelketetan aritzeko eta gure planifikazio guztia bertan behar jarri zuten. Aitor Alberdi zen gure beste aukera baina gastroenteritis jata aritu behar izan zuen, eta, hala ere, aurrean egon ginen, podiumeko aukerekin. Horregatik, oso kontentu egindakoarekin.

**AC/DC leloa omen duzu, txirrindulariei behin eta berriz errepikatzen diozuna...**

Txikitatit naiz AC/DC taldeko zalea, batetik. Baina AC/DC-k, gaztelaz "Ac-

titud, Confianza, Disciplina y Constancia" esan nahi du niretzat; hau da, jarrera, konfiantza, diziplina eta jarraikortasuna. Horiek dira txirrindulari on batek izan behar dituen baloreak. Konpromisoarekin batera. Eta horregatik autoan beti AC/DC jartzen diet, kamisetak eta guzti egin genituen (kar, kar...). Oso harreman ona dut txirrindulariekin baina adin zailan gaude. Batzuetan oso individualistak dira, eta hori ez dut gustuko. Nik, guztiek talde moduan lan egitea nahi dut. Itzulietan eta lasterketa luzeetan talde bezala jokatzeko dute, baina lasterketa normaletan nik guztiei aukera berberak ematen dizkiet.

### Nola dator hurrengo denboraldia?

Jubeniletatik bi aterako dira, txirrindularitza utzi duen Urko Gorriti eta hurrengo urtean afizionatuetan ariko den Inhar Astitz. Gainontzeko guztiek, Arrieta eta Alberdi barru, jarraitzen dute eta kadeteetan ere Martxel Etxeberria, Jon Erdozia eta beste igoko dira. Beraz, 10-11 txirrindularitz osatutako talde sendoa dugu hurrengo urterako. Gogotsu nago, ilusioarekin. Maila pertsonalean kosta egiten da; 7 urte daramatzat oporrak txirrindularitzarako hartzen. Konpromisoa handia da, astebururo lasterketak, entrenamenduak... baina momentuz balantzea egiten dut eta merezi dit. Mutilengatik nago hemen, hori oso argi dut. .

**Txirrindularitza talde bat aurrera ateratzea ez da erraza...**

Inondik inora. Txirrindularitza talde bat aurrera ateratzea oso lan nekeza da. Esfortzu handia egin behar da, lan handia, eta diru asko lortu behar da taldea aurrera ateratzeko. Bereziki kadeteen eta jubenilen mailan.



Etxarri Aranazko Abesbatzako kideak 'Ahotsak' saioko sariarekin. UTZITAKOIA

## Ahotsik hoberenak Etxarri Aranatzan daude

Etxarri Aranazko Abesbatzak ETB1eko 'Ahotsak' saioa irabazi du. Zortzi abesbatzekin lehiatu ziren finalean eta koru sakandarra gailendu zen, Hibai Etxebarria saioaren epailearen bi puntu erabakigarriak jaso ondoren

### ETXARRI ARANATZ

"Finala borobila izan zen, pentsaezina". Etxarri Aranazko Abesbatza sinistu ezinik dago. *Ahotsak* saioaren lehenengo edizioaren irabazlea izan da. ETB1eko *talent show*-a Euskal Herriko abesbatzarik hoberenaren bila aritu da zortzi astez. Astero hiru abesbatzek parte hartzen zuten saioan, eta haietako batek

finalerako txartela lortzen zuen. Hortaz, zortzi abesbatza iritsi ziren finalera: Bilboko Bilbotxeros abesbatza, Basauriko Zirzira ahots taldea, Leioako Dorieni abesbatza, Errenteriako Dizdizka abesbatza, Uga-Miravalleseko Ugaoko sare abesbatza, Atarrabiako Paz de Ziganda abesbatza, Hernaniko Dakapo abesbatza eta Etxarri Aranazko Abesbatza.

Donostian egin zuten final handiaren gala eta astelehenean emititu zuten.

Mikel Jauregi abesbatzaren ordezkaria izan da saioan zehar eta "hasieratik giro paregabea" sortu dela esan du. "Lehia hor zegoen, baina guztiendako garrantzitsuena esperientziaz disfrutatzea eta gozatzea zen". Final handian abesbatza bakoitzak

aukera bakarra zuen oholtzaren gainean, eta bertan "daukan guztia" erakutsi behar zuen. Estilo desberdinak ikusteko aukera izan zen, eta Jauregik esan duenez, emanaldi bakoitzetik "gauza asko ikasteko" aukera izan zuten ere.

*Aritz Adarrean-Katalin* Julen Ezkurraren euskal kanta abestu zuen Etxarri Aranazko Abesbatzak finalean. "Aukera ona egin genuela uste dut, euskal folklorea Etxarriko abesbatzaren ezaugarri nabarmenatariko bat baita". Abesbatzaren "potentzia eta indarra" erakusteko aukera eman ziela azaldu du Jauregik, "baita abesbatzaren alderdirik sentikorrena erakusteko aukera ere". Telebistako saio bat zenez, "edozer gauza gerta zitekeen", baina emanaldia "ona" egin zutela sentitu zuten. Beraz, "irabazteko itxaropena ere" bazuten.

Abesbatza bakoitzak aukeraturako abestia taularatu ondoren, bozketen garaia heldu zen. "Hor ere bikain joan ziren gauzak". Hiru abesbatzek Etxarri Aranazko abesbatzari eman zizkioten botoa, eta besteen aurretik jartzea lortu zuen. Azkeneko hitza Hibai Etxebarria saioako musika adituak eta epaileak eman zuten, eta Etxarrikoie eman zizkien bi puntu erabakigarriak. "Oso urduri geunden denak". Ondorioz, Etxarri Aranazko Abesbatza *Ahotsak* saioako lehenengo edizioaren irabazleak dira.

### Musikarekiko maitasuna

Lehiaketan parte hartu zuten abeslariak ez zuten aurretik elkar ezagutzen, baina Jauregik esan duen moduan, "bageunean zerbait komunean: musika konpartitzearen eta sentitzearen maitasuna", eta horrek, nahiz eta lehia baten barruan egon, "ha-

rremana eta giro ona sortzea" eragin zuela gaineratu du abesbatzako kideak.

Irabaztea sari handia da, are gehiago saria 5000 euroko txeke bat denean, baina "bizitako esperientzia" izan da gehien gustatu zaiena. "Telebistako programa baten parte hartu, fase guztiak pasa, finalera iritsi eta irabaztea zoragarria izan da". Hortaz, "denendako" esperientzia berria izan da.

### Sekretua

*Ahotsak* saioko finala uztailean grabatu zuten, Donostian, eta astelehenera arte sekretua gorde behar izan dute: "ez da erraza izan, jendeak beti emaitza jakin nahi duelako". Gainera, Etxarrikoak irabazleak izango zirela "argi" zeukan jendea ere bazeagoela esan du Jauregik, "hagitz ongi ezagutzen gaituzte".

Euskal Herriko abesbatzarik onenaren titulua lortzeak Euskal Herrian "atari berriak zabaltzea" espero du Etxarri Aranazko abesbatzak. "Eta zergatik ez, Euskal Herrikan kanpo ere". Haien ahotsak eta "musikarekiko sentitzen dugun pasioa" jende gehiagorengana iristea da abesbatzak hartuko duen erronka.

Saria "koruarentzat onuragarria den zerbaitetan" inbertitu nahi dute, esaterako, 2020ko abenduan abesbatzaren 50. urteurrena ospatzen hasiko direla azaldu du Jauregik.

## 2020. URTEAN ABESBATZAREN 50. URTEURRENA OSPATZEN HASIKO DIRA

## Hogei hizkuntzako abestiak kontzertu bakar batean

'Gure Altxorra' ikuskizuna eskainiko du Etxarri Aranazko Abesbatzak bihar, 19:30ean, lortia kultur gunean

### ETXARRI ARANATZ - ALTSASU

Euskal Herriko abesbatzarik onenaren titulua eskuetan duela kontzertua eskainiko du Etxarri Aranazko Abesbatzak Altsasuko Iortia kultur gunean. Gure Altxorra hizkuntza indigenak oi-

nari dituen ikuskizuna eskainiko dute, bihar, larunbata, 19:00ean. Etxarri Aranazko abesbatzak udaberriaren mustu zuen Gure Altxorra kontzertua Etxarri Aranatzan eta "harrera oso ona" izan zuten Mikel Jauregi abesbatzako

kideak azaldu duenez. Hortaz, "jende gehiagorengana iristeko" Altsasun egingen dute oraingoan. 'Ahotsak' saioaren lehenengo fasean interpretatuko abestiak Gure Altxorarak kontzertuaren errepertorioetik atera zituzten.

Etxarri Aranazko abesbatzak urtero kontzertu bat egiten du udaberriaren. Aurtengoa "tematikoa" izan zen eta hizkuntza indigenei eskaini zien. Izan ere, 2019 urtea Nazio Batuen Elkarrekin Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea izendatu zuen.

"Hizkuntza hauen berri eman eta mantentzea, biziberritzea eta erabilera sustatzea da helburua". Hortaz, abesbatzak bere ekarpena egitea pentsatu zuen "dakigun moduan", hau da, musikaren bidez.

"Abestien hautaketa publiko orrorokorarentzat erakargarria dela uste dugu", azaldu zuten Maria Jesus Palazuelos eta Oihana Razkin abesbatzako kideek. Gainera, eszenaratzeari garrantzia "berezia" eman zioten eta abesten duten bitartean instur-

mentiak jotzen dituzte, dantza "pixka bat" egiten dute eta jantzien osagarri batzuk erabiltzen dituzte ere. "Publikoa munduan zeharreko bidaiaren baten murgiltzen dugu". Guztira, 20 hizkuntza hautatu zituzten, tartean zapotekera, takelauera, samiera, zuluera, swahilia, tamileria, gaelikoa, sadiniera eta bar. "Kontzertua diseinatzeko hizkuntza gutxituei garrantzi berezia eman diegu". Gainera, abestiek gai asko jorratzen dituzte: erritu abestiak, maitasun abestiak...



Gema Sangkakala Indonesiako abesbatza Etxarrin izanen da gaur. UTZITAKOA

## Munduari buelta ematen dion Abesbatzen Zikloa Sakanan

Nafarroako Nazioarteko Abesbatzen XXV. edizioa izaten ari da egunotan, eta Sakanan geldialdia egin du

### ETXARRI ARANATZ

Koru-kantua sustatzeko helburuarekin sortu zen 1995ean Nazioarteko Abesbatza Zikloa. Hortaz, aurten 25. edizioa antolatu du Nafarroako Abesbatzen Federazioak. Hamar egunez, 15 herrialdeetako 17 abesbatzek Nafarroako geografia osoan zehar 28 kontzertu eskaini dituzte. Urtero bezala, zikloak geldialdia egingen du Sakanan ere. Atzo Irurtzongo San Martin elizan Poloniako Art'n voices vocal Ensemble abesbatza izan zen eta, gaur, azaroaren leian, Indonesiako Manado hiriko Gema Sangkakala abesbatza izanen da, 19:00etan, Etxarri Aranazko Jasokunde elizan.

Nafarroan Nazioarteko Abesbatzen Zikloa egiten da. Estatuan egiten den nazioarteko ziklo bakarra da. Munduko 15 herrialdeetatik etorritako 17 abesbatzek parte hartu dute, baita Nafarroa-

ko zenbait abesbatzek ere. Besteak beste, aurten Indonesiako, Poloniako, Lituaniako, Letoniako, Belgikako, Errusiako edo Britainia Handiko abesbatzak izan dira Nafarroan bertako doinuak aho-tsen bidez erakutsiz.

### Poloniatik eta Indonesiatik

Aurten Sakana bisitatu dituzten bi abesbatzak Poloniatiketa Indonesiatik etorri dira. Atzo Irurtzunen Art'n Voices Vocal Ensemble abesbatza poloniarra izan zen. Gaur, azaroaren leian, 19:00etan, Etxarri Aranazko Jasokunde elizan Indonesiako Gema Sangkakala abesbatza izanen da. Emakumeez osatutako abesbatzarik ezagunetarikoa da. Izen bereko fundazioaren parte dira. Abesbatzekiko pasioa duten inguruko elizak eta edozein jatorri duten pertsonak biltzen ditu. Haien musikaren bidez Jainkoaren mezu zabaltzen dute.

# Poesiaren berotasunean murgiltzeko arratsaldea

Hamalagarrenez Poesia errezitala egingen dute igandean, azaroaren 3an, Uharteko Donibane jubilatuen elkartean. Gregorio Torres, Tomas Yerro eta Blanka Arrizabal olerkariak haien lanak eskainiko dute. Mikel Auzmendik gitarra joko du

### UHARTE ARAKIL

Blanka Arrizabalaga uhartearrak bakardadea behar du poesia idazteko. Hortaz, gauetan idazten du. Idatzitakoa urtero antolatzen duen poesia errezitalean plazaratzen ditu. Olerki batzuk egunerako propio eginak dira, beste batzuk aurretik egingakoak dira. Arrizabalagarekin batera, aurten, Gregorio Torres eta Tomas Yerro idazleek errezitatuko dituzte haien poemak. Mikel Auzmendi gitarra jole etxarriarrak olerkiak girotuko ditu. Poesia errezitala igandean, azaroaren 3an, 18:00etan, Uharteko Donibane jubilatuen elkartean izanen da.

"Jendeak galdetzen dit ea noiz egingo dudan poesiarena". Tradizio bat bihurtu da poesia errezitala Uharteko Arakilen. Blanka Arrizabalaga duela hamalau urte antolatzen hasi zen, Mercedes Viñola idazlearen liburu baten aurkezpenarekin. Ordutik, geroz eta jende gehiago biltzen da udazkeneko igande batean jubilatuen elkartean. Inguruetako herrietatik ere jendea gerturaten dela dio Arrizabalagak. "Oso tarte polita pasatzen dugu". Gainera, entzuleen artean ere zaletasuna piztu du errezitak: "Badago jendea poesia egiten hasi dena, baina gero ez dute



2017ko Uharteko Poesia errezitala. ARTXIBOA

irakurri nahi". Hortaz, idazleek publikoaren poesiak errezitatzeko dituzte ere.

Haur zenean Arrizabalagari poesia asko gustatzen zitzaion maistra bat izan zuen. "Poesia asko eman zigun". Gainera, poesia berridazten zigortzen zintzen. Uhartearrendako, aldiz, ez zen zigor bat: "Oso erromantikoa naiz, eta niri gustatzen zitzaidan". Gero senideen urtebetetzeetarako olerkiak egiten hasi zen, eta pixkanaka "barruan duena" poesiarekin ateratzen du. Bere poesia "xumea" dela dio.

Uhartearraren poesia bezain xumea da urtero jubilatuen elkartean antolatzen duen errezitala. Baina jendea "oso gustura" egoten dela esan du. Gregorio Torres eta Tomas Yerro gonbidatutako idazleak ere errezitalean "oso gustura" egoten direla aitortu du. "Oso jatorria dira, jende umila". Erreztalaren ondoren merendu txiki bat egiten dute, eta poesiaren eta entzun dutenaren inguruan hitz egiteko tarte dute. Tomas Yerro Vianako Printzea saria irabazi du aurten.

## Maitasunaren eta elkartasunaren aldeko mezua

Josefina Arregi klinikaren 25. urteurren handia eta arrakastatsua egin zuten igandean

### ALTSASU

25 urte ez dira urtero betetzen, eta Josefina Arregi klinikaren Lagunen elkarteak eta klinikak elkartasun jaialdia antolatu zuen. Sakanako hamaika musika eta dantza talde deituta zeuden. Guz-

tira, 300 bat artista izan ziren Altsasuko Burunda frontoiko pistan eraikitako agertokietan. Musika eta dantza estilo desberdinak uztartu ziren ikuskizunean, mezu argiarekin: "maitasuna ahaztura baino indartsuagoa da".

Genaro Paniagua izan zen ikuskizunaren aurkezlea. Klinikaren Lagunen elkarteko kidea da Paniagua, baita Erkudengo Ama abesbatzako kidea ere. Hirukoa egin zuen altsasuarrak. Horrela jaialdi handi bat antolatzeko "lan egiten duen jendea" dagoela goraipatu du Paniaguak: "Jende asko dago guzti honen atzetik, eta dena mezu berdinarekin: maitasuna dago guztien atzetik". Igandean maitasuna eta elkartasuna musikaren eta dantzaren bidez aldarrikatu zituzten.



Josefina Arregi klinikaren urteurren jaialdia.

# "Filmaren erroda jean zinemaz asko ikasi dut"

**MAFALDA CARBONELL ARELLANO AKTOREA**

Vivir dos veces filmaren protagonistetako bat da Mafalda Carbonell Arellano aktore gaztea. Gaur eta etzi, 19:30ean, filma aurkeztuko du Iortia Kultur Gunean

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Arte eszenikoen munduan jaio eta hezi da Mafalda. Pablo Carbonell artista da bere aita eta Maria Arellano ekoizle eta komunikazio arduradun altsasuarra bere ama. Zinemaren munduan murgildu da orain, eta "gustatu" zaio. Vivir dos veces filmaren protagonistetako bat da, eta gaur, 19:30ean, eta igandean, 19:30ean, Iortia kultur gunean pelikula aurkeztuko du. Altsasuko auziagatik espetxeraturako gazteen gurasoekin elkartasuna adierazi du; gazteetako bat, Iñaki Abad, ezagutzen du, "Formigalen ama eskiatzera joaten zenean zaintzen ninduzu".

**Zeri buruzkoa da pelikula?**

Biloba bat eta aitona bat agertzen dira. Aitonak bere lehenengo neska-laguna ikustera joan nahi du. Hasieran erokeria bat iruditzen zaie, baina bidaia egiten dute. **Nolakoa da zure pertsonaia?** Haur bat da. Bere gurasoekin harreman oso ona ez duena. Bere aitonaekin ez du harremanik, ez duelako asko ezagutzen. Bukerara haur berri bat agertzen da. Gurasoak maite ditu eta aitona laguntzeko prest dago.

**Nola izan da Oscar Martinez, Inma Cuesta, Nacho Lopez eta Aina Clobet aktoreekin lan egitea?**

Hasieran pentsatu nuen: ai, ene, non sartu naizen! Aurretik *Club Houdini* haurrendako seriea egiten nuen, baina joko bat zen. Hortaz, filmaren erroda jera iritsi aurretik pentsatzen nuen oso serioa izan behar zela eta geldirik eta eserita egon beharko nuela. Baina aktoreak ezagutu nituen eta oso dibertigarriak dira. Ez nuen espero horrela izatea.

**'Club Houdini' izan zen zure lehenengo aldia kameraren aurrean, eta gustatu zitzaizun.**

Lehenengo denboraldia egin nuen eta asko gustatu zitzaidan. Nire aita artista denez, asko lagundu dit mundu hau ezagutzen. Oso txikitatik ezagutu dut eta nik



Mafalda Carbonell Arellano aktorea Iortia Kultur Gunean.

uste horregatik gustatzen zaidala ere.

**Nola sortu zen seriean parte hartzeko aukera?**

*Jugando con las estrellas* saioan parte hartu nuen aitarekin eta programaren zuzendaria seriearen zuzendaria zen. Ezagutu ninduen eta ea teleailean parte hartu nahi nuen galdetu zidan. Baietz esan nion. Lehenengo denboraldia amaituta, hor amaituko zela uste nuen. Baina bigarrena eta hirugarrena iritsi ziren.

**Aldea dago serie bat edo film bat grabatzearen artean?**

Oso desberdina da. Seriearen erroda jea txikia da eta jendea dagoen arren, ez da pelikulan bezainbeste. Baina set-ean egotea, kameraren aurrean egotea, hori berdina da.

**Nola da 11 urteko gazte baten bizitza eta erroda jea uztartzea?**

Zaila. Filma Valentzian grabatu genuen eta ni Madrilen bizi naiz. Orduan, egun libreetan irakasle batekin 14 orduz egoten nintzen azterketetarako ikasten. Klasera iritsi nintzenean azterketak aste bakar batean egin behar izan nituen. Askok ikasi nuen, eta nota onak lortu nituen.

**Esperientzia honetatik zer ikasi duzu?**

Zinemaz asko ikasi dut. Aktore handiengatik ikasi dut, eta ez bakarrik interpretazioaz. Orokorrean, zinemaren munduaren inguruan. Seriean zerbait ezagutu nuen, baina pelikula biziagoa denez, gehiago ikasi dut.

**Zer moduzko esperientzia izan da?** Oso esperientzia ona izan da. Berdin zitzaidan erroda jean zenbat ordu behar nuen. Ez nuen etxera joan nahi. Askok gustatzen zitzaidan set-ean egotea.

**Interpretazioarekin jarraituko duzu?** Orain ikasurtea dago, eta ez dut grabatuko. Aurretik Alex de la

Iglesiarekin *30 monedas* HBoko seriea eta Juanma Bajo Ulloarekin *Baby* filma egin ditut. Nazioarteko aktore zerrenda du filma honek. Ez dut uste interpretazioa ikas daitekeen zerbait denik. Gauza batzuk bai, baina beste batzuk ez. Naturaltasuna behar duzu, eta hori ez da ikasten. Barruan dagoen zerbait da.

**Nola daramazu ospea?**

Zerbait normala bezala. Etxean ikusi dut. Argazki bat egitea onartu dezaket, baina askotan nahi dute zurekin hitz egin, zurekin jolastu... Baina pertsona normal bat naiz. Etxean ere drogei eta alkoholari buruz hitz egin didate.



## Sustraiak interpretatzeko

Altsasuko sustraiak Jose Antonio Ulibarrenaren eskulturak 25 urte bete ditu, eta Altsasuko udalak interpretazio panela jarri du eskulturaren elementu garrantzitsuenak azalduz. Izan ere, eskulturak herriko nortasuna biltzen du, baita Altsasuko gertakari historikoen ikurrak ere.



# ERLAUNTZA

## AZAROAREN 9A LARUNBATA, 19:30EAN

PREZIOA: AURRETIK: 10 € · EGUNEAN BERTAN: 12 €  
BERRIALAGUNEK: AURRETIK: 8 € · EGUNEAN BERTAN: 10 €

ANTOLATZAILEA:  
BERRIA, SAKANAKO MANKOMUNITATEA ETA ALTSASUKO UDALA



Karlos Lanza Arnedo Uzbekistanen. Han zendu zen Drako eta han agertu zitzaion Uzbek, txakur berria. CARLOS LANZA

## "Kirgizistan gustatu zait gehien, paisaiengatik"

la urte bat Europan eta Erdialdeko Asian eman du Carlos Lanza Arnedo altsasuarrak autokarabanarekin paraje ezberdinak ezagutzen. Bere argazki batek irabazi zuen Guaixeko udako oporretako argazki lehiaketa. Bitzako esperientziaz aritu gara

**Maidet Betelu Ganboa** ALTSASU

### 1 Urte sabatikoa hartzea erabaki zenuen.

Hainbat arrazoi zirela medio geldialdi bat egin, atzerrira joan eta gauzak distantziatik, beste perspektiba batetik ikusteko beharra sentitu nuen. Agurainen dudan agentziarako langile bat kontratatatu nuen eta azaroan au-

tokarabana hartu eta errepidean aurrera egitea erabaki nuen.

### 2 Bakarrik?

Drako, nire txakurrarekin. Bakarrik joatean guztiarekin apurtzen duzu eta zure buruarekin topo egiten duzu berriz. Eta hori nahi nuen. Europarantz jo nuen: Frantzia, Italia, Grezia, Albania, Eslovenia, Croacia,

Bosnia... Urrutien Erdialdeko Asian dagoen Kirgizistanera iritsi nintzen. Antzinako Errusiar Batasunetik sortutako errepublika bat da. Kazakhstan, Tajikistan, Uzbekistan eta Kirgizistan, eta ondoren Txina dago. Antzinako zetazko ibilbidea. Kirgizistanen lagun bat dut eta lanpostu bat eskaini zidaten: mendi gidari lanak egitea espai-

niar turistekin. Eta mendiko gida lanetan 4 hilabete eman nituen. Irailaren bukaeran itzuli nintzen, bidaia agentziaren ardura hartu behar nuelako.

### 3 Zure ibilbide horretan jende asko ezagutu duzu?

Gehienbat bertako jendearekin egin izan ditut harremanak turistekin baino. Greziako iparraldean ere hilabete bat eman nuen, Nea Kavalako errefuxiatuen kanpamentuan, eta bertan errefuxiatu asko ezagutu nituen.

### 4 Zeinen esperientzia gogorra...

Bai, izugarria, gogorra, baina aldi berean, polita. Bertan dauden errefuxiatuek Grezian egoteko erresidentzia-txartela dute eta pasaportearen zain dade. Egoera gogorra da, bizitzaren inguruko lezio ugari ikasten dituzu. Errefuxiatu gehienak Siriako kurduak ziren, eta berriki mezu asko bidali dizkirate, Erdoganeke egin dituen bonbardaketen berri emateko. Errealitate buelta gordina.

### 5 Etxekoek nola bizi izan dute zure urte sabatikoa, kezkarekin?

Erdialdeko Asiako herrialdeak oso seguruak dira, nahiz eta askok kontrakoa pentsatu. Mendietan edo basamortuan sarritan ez dago koberturarik; horregatik kezkatzen zen gehiago ama. Baina oso herri seguruak dira.

### 6 Zein herrialde gustatu zaizu gehien?

Kulturalki Iran edo Uzbekistan eta paisaien edertasunagatik Kirgizistan. Kirgizistanen %90 mendia da, 3.000 metrotik gorakoa gehiena. Ez dago apenas turismorik, mendiei buruzko

mapak eta kartografia ez da apenas existitzen. Nepal antzekoa da, baina basatian. Sekulako paisaiak daude. Eta Iran munduko herrialderik abegikorrena da, bertara doazen bisitari guztiak oso ongi hartzen dituzte. Oso seguru da, sekulako harribitxia.

### 7 Zenbat aurreiritzi ditugun...

Hemendik Kirgizistanera bitartean ez dut berez pobrea den herrialderik zapatu.

### 8 Zein da izan duzun esperientziarik txarrena?

Drako nire txakurraren heriotza, Uzbekistanen. Oso gaizki pasatu nuen, baina handik 4 egunera, toki berdinean, txakur bat agertu zen, Drakoren oso antzekoa. Jaten eman nion eta ez zen ondotik mugitu. Nirekin geratu zen eta Uzbek du izena.

### 9 Guaixeko oporretako argazki lehiaketa irabazi zenuen.

Lagun bat etorri zen bisitan, Eider, eta lehiaketaren berri eman zidan. Kirgizistaneko argazkiak bidali eta irabazi zenuen.

### 10 Nolakoa izan da itzulera?

Oraindik lur hartzen nago, eta gogorra egiten ari zait. Errutinara buelta hori kostan egiten da. Udan Kirgizistanen mendiko gidari izateko lana eskaini didate berritri. Aztertzen ari naiz ea hemen 6 hilabete lan egin ditza kedan eta gero beste urte erdia Kirgizistanera joan naitekeen. Ea guztia uztartu dezakedan.

### 11 Zure esperientzia gomendatuko zenuke?

Horrela, besterik gabe, ez. Gauza hauek norberari atera behar zaizkio, barrenetik.

*Zure irudia*  
**BERRITU**

*Logoak, bisita txartelak, publizitatea, flyerrak...*

948 564 275  
 Fone 0143, 23-1. Altsasu  
 @Ekomunikazioeus  
 www.glokomunikazioeus

**gk**  
 GUAIXE